


OLATZ PRAT ▶ Abeslari baten lehendabiziko pausoak



BAKARDADEA GALIZIAN



FERNANDO MORILLO IDAZLEAK URTEBETE DARAMA PONTEVEDRAN, "ISOLATU ASMOZ"



Enparan kalea 8, Tel. 943 - 151004

ODONTOLOGI OROKORRA

- > Bideo bidezko diagnostikoa
- > Erradiografia digitala
- > Hagin-ateratzeak (azkenaginak...)
- > Endodontzia
- > Peridontzia
- > Garbiketa
- > Aho erreabilitazioa



HORTZ KLINIKA

Antonio Rafaniello

389 Koleg.

Enparan 8 - 1 Tel.: 943 81 67 36

ODONTOLOGI ESTETIKOA

- > INPLANTEAK
- > Koroak
- > Ahoko zubiak
- > Karilak
- > Hortz zuriketa
- > Protesi finkoak eta mugikorak
- > Odontologi tratamendu integralak



IXIAR SAN JUAN



ESTETIKA ZERBITZU

Loiolabide 19, behea

943 81 02 17



**SUKALDEKO ALTZARIAK
BAINUGELAK
HORMAN SARTUTAKO ARMAIRUAK**

PEREZ ARREGI, 9 Tfnua. eta Faxe: 943 15 05 10

Hiruko txikian ▶ Iban Arregi

Emakumeak, gazteak, tabernak

1 "Emakumezkoak espazio publikoan babesik gabe sentitzera hezi gaituztelako, besiteen begidara pean egoteak lotsa pizten digu. Zerbait gaizki egiten ari garen sentazioa. Heziketaren karga honekin, zaila da emakumezko gure gorputza publikoari agertuko diogun ekintzetan parte hartzea, esaterako kirolean"; Maider Cilveti, *Berria*. Azpeitian ere gertatzen da, eta Eliz kaleko jaietan emakumeentzako pala txapelketa antolatu zuten. Heziketa patriarkalari aurre egiten Eliz kalekoak.

2 "Gazte-gunea ez da helburua, tresna baizik". Halako zeozer dioten pankartak ikusi ditugu herrian, Azpeitian Gazteok Zer!?-ek sinatuta. Garrantzitsua da hori argi edukitzea gazteek beraiek. Eta esatea erraza da, baina gero erakustea ez hainbeste. Ilusioa behar delako, lana egin behar delako, proiektuak aurrera eraman behar direlako. Gazte-gunea edukitzea garrantzitsua da, baina horrek berak bakarrik ez dio alderik eragingo gazteriarri, Azpeitiari. Badugu konfiantza.

3 Uztarrria aldizkaria 2020ra begira jarri zaigu azken zenbakiotan, gogoeta egiten. Ni ere 2020ra begira jarri, eta Azpeitia aldatuta ikusten dut. Esaterako, taberna-girorik ez dut ikusten. Txikiteorik ez, gaueko poteorik ez. Gazteen arteko "epa" eta "aio"-rik apenas, berriketa gutxi. Azpeitia ere Europa da. Exageratua? Iritsiko da, iritsiko da. Ohiturek, legeek, administrazioek horretara daramate Azpeitia (ere). Eta orduan ikusiko dugu taberna bat taberna baino zerbait gehiago ere badela.

uztarria ▶

UZTARRIAREN DATUAK ▶

Argitaratzailea. Uztarrria Azpeitiko Kultur Koordinadora

Egoitza. Julian Elorza Hiribidea 4 behe, eskubia (Azpeitia, 20730)

Telefono eta fax zenbakia. 943 15 03 58

Posta elektronikoa.

uztarria@topagunea.com

Posta kutxa. 227, Azpeitia

Lege gordailua. SS-860/2000

Zenbakia. 53.a (2004ko uztaila)

Urtea. VI.a

Maiztasuna. Hilabetekaria

Web orria. www.uztarria.com

Diseinua. hitzeko

Publizitatea.

▶ 699 64 66 01

▶ uztarria@uztarria.com

Bazkidetza-Harpidetza. 15 03 58

Tirada. 2.400 ale

Inprimategia. Gertu

Azaleko argazkia. Isabel Garabana

Oharra. Uztarriak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik

[u-iritzia]

08 Inkesta. Etxeko txikienei udan udalekuetara joateko asmorik ba al duten galdetu zaie.

10 Gogoetari leiho. Azpeitia 2020. Iñaki Seguro eta Joxin Iturriozek kulturaz aritu dira.

[u-mamia]

12 Musika. Olatz Prat abeslariak azkeneko urtean aurrerapauso handia egin du piano-jole batekin batera.

16 Klik. Sabiñanigoko proban berriz ere herritar parte-hartzaile asko.

20 Fernando Morillo. Idazle azpeitiarra Galizian.



[u-jakiteko]

26 Diapoesia. Hiru azpeitiar gazte azken hilabeteetan Euskal Herri osoan dabilta poesia emanaldiekin.

[u-euskara]

38 Bai Euskarari Ziurtagiria. Herrian beste bederatzi eragilek dute Bai Euskarari Ziurtagiria, eta dagoeneko 44k daukate.

Bai Euskarari Ziurtagiria
bai
Guk zerbitzua eta
lana euskaraz

UZTARRIA AZPEITIKO HERRI
ALDIZKARIAREN LAGUNTZAILEAK ▶
(erakunde publikoak)



AZPEITIKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Enbido ▶



Pako Aristi

Gure munduaren antzerkia

Ez dira herri asko izango sarreran santu baten argazkia daukatenak. Azpetian mutur batean santuaren argazkia dago, beste muturrean Loiolako basilika erraldoia, ermitaz eta komentuz inguratua, eta gainean, Izarraitz puntan, santuaren estatua gauero argiztatua. Sinbolo horiek mugatzen dute gure bizitza Azpetian, eta ez zaizkit batere gustatzen.

Zestoatik zatozela hor dago Azpeitiaren sarrean, bide zaharretik, San Inazioaren poster galanta, gainean foko bat duela, eta ondoan plaka bat: 'Madalena auzoa'; eta behean beste bat: 'Madalenako ermita'. Santu bat eta bekataria bat elkarren ondoan; Inazio jauntxo, neskazale eta bekataria handia izandakoa eta Madalena, Jesusek bide onera ekarri zuen prostituta. Ez dute bikote txarra osatzen. Ona eta txarra, arra beti ona, emea beti txarra, orain biak bat eginda.

▶ **SINBOLOAK.** Sinboloekin jolastea asko gustatzen zait, eta nonbaitetik Azpeitira natorrenean Madalenako sarrera hori igaro ondoren antzerki batean sartzen ote naizen irudipenak hartzen nau askotan. Gure bizitza beste norbaitek idatzi duen gidoia jarraitzea besterik ez ote den. Denok gauza igoalak egiten ditugu, antzezle bikainen moduan, gauza onak batzuetan, txarrak askotan, eta gero errua sentitzen dugu eta penitentzia txikiak betetzen ditugu. Gure ohitura sozialak ikusi besterik ez dago.

Ezkontzetara denak doaz igoal-igoal jantzita, telebistako ezkontzetatik eta programa horteroetatik kopiatutako diseinuekin. Dantza denek igoal egiten dute, txorakeria igoalak esaten dituzte denek. Bataioak ere ezkontza txikiak bilakatu dira: denak elegante gero jatetxean egundoko bazkaria egitera. Gabonak jaten ematen ditugu etengabe, eta gero dator damua; baina damua ez da gure bizitza ereduak munduari sortzen dion nahigabeagatik, ez; damua da lau kilo gizendu garelako.

Orduan denak bizikletan eta lasterkan hasten dira. Hori egin gabe, nahikoa zen gutxiago jatea, bizitza normalago bat eramatea, baina ez: denek egiten dutena ezin guk egin gabe utzi, gogorik gabe jan behar badugu ere.

▶ **ELIZA ETA ITXURAKERIA.** Antzerki honen arduradun nagusia Eliza da gurean, sakramentuak ikuskizun sozial bihurtu dituelako. Jaunartzeak ikusi besterik ez dago, zenbat diru gastatzen den arropatan eta dexente aurretik enkargatutako jate-txeetan. Egun sozial handia jaunartzearena, baina hiru urteren bueltan haur horiek mezatara joateari utziko diote. Egun handia izan zen Konfirmazioarena Urrestillan duela gutxi; 20 gazte bedeinkatu zituen gotzainak, baina hurrengo igandean haietako bat bakarra ere ez zegoen mezatan. Zertan ari gara? Dena itxurakeria bihurtzen, mamirik eta funtsik gabeko antzezpena, besterik ez. Hori bai, banketeak ez dira inoiz faltako gure artean, arrazoirik purtzilena erabili behar bada ere.

Eliza da gurean politikaren eszenatokia. Zenbat meza ematen dituen Kaito Telebistak: Xoxoten meza, zaharren egoitzan meza, auzoetako jaietan meza, ez dakit zeren inaugurazioaren meza... eta zinegotziak hor daude beti, kamerarik gabeko mezetan asko ikusten ez ditugunak. Lehendakaria urtean behin etortzen da Azpeitira, zertara eta meza entzutera, hori bai, prozesioan ibili behar da aurretik, herriak jakin dezan nor dagoen boterean. Hori ez da serioa; lehendakariak herritar guztiekin egoitera etorri behar luke, eta herritar gehienak ez dira mezatara joaten. Ezagutuko ote dugu Azpetian prozesioan ibiliko ez den alkaterik? Zenbat gustatzen zaigun desfilatzea, arropa dotoreak jantzi eta aurpegiak serioena erakutsiz! Zein pobreak garen geure aberastasun erakustaldietan!

Herriko negozianterik handienak mezatara doaz, zer eta aberatsak ez direla zeruan sartuko entzutera. Hori nola da posible? Ba Elizak nolabaiteko 'label' bat ematen diolako bertara hurbiltzen denari, antzerkian leku on bat eskainiz.

Horregatik nik neuk idazten ditut nire gidoiak.

HILEKO GALDERA ▶

Aurpegiako pote bakoitzeko zenbat liburu erosi ditugu?

BERTAKO HARAGIA... ...GURE HARATEGIETAN

Beloki
Kale Nagusia, 75 Tel.: 943 85 04 62
AZKOITIA
Jose Arretxe, 21 Tel.: 943 151392
AZPEITIA

PATXO

EDUARDO BERASATEGUI
Harategi eta Zerritegia
Euskal Herriko Haragink Onenak
San Inazio Kaleko 12an
Urrut. 943 81 14 98


bertako okela
HARZUBIA, 26 D
TEL. 81 60 25
ETXEOA 15 00 03
AZPEITIA

 **Harategia
Odriozola**
Harategi
Especializatua
Arana Kalea, 14
Urrut.: 943 81 1015

JB San Sebastián

HERRIKO HARAGIA - HERRIKO TXERRIA
ETXeko URDAIKIA
FORU HIBILBIDEA, 4
TFNOA. 81 15 94
AZPEITIA

ZABALA HARATEGIA

KALITATEZKO
HARAGIA
BUSTINZURIKO ERREBAL
TFONOA.: 943 811671

**EUSKAL
OKELA**

CARNE DE VACUNO
DE CALIDAD
DEL PAIS VASCO

EUSKO LABEL

KALITATEA

Zazpikurutze



Manex Beristain

Goizeko 3:45ak dira, igandea da eta lurrean botata daukadan koltxoitik salto batez altxatu naiz. Koltxoia ohe gainera brausta bota eta lehen prestatutako motxila bete dut, niki bat aldatzeko eta jateko zer-bait; ah! eta eguzkitako betaurrekoak, frontala eta kantiñplora. Gosaltzeko zer-bait eskuetan hartu, bidean jateko eta lagunarengana abiatu naiz, berandu samar baina lasai. Aspaldi esnatutako itxura aurkitu diot kideari edo, bestela, erretiratu gabea. Azkoitira bidean jendea pauso astunak espaloietan marraztuz gauari agur esaten eta gu begietako makarrak kentzeko lanetan eguna hasi nahian. Behin Azkoitian autoa aparkatu eta plazara abiatu gara, izen-emate lekura, berandu goaz baina lasai.

“Manex Beristain Agi...”

“Ez, lasai, batekin nahikoa”.

Eta amaren abizena?

Ibilbidearen orritxoa hartu eta bixi antzera abiatu gara aurreko partaideak atzemateko gogoz, berandu goaz baina lasai. Kaleko argiek oraindik ere txukun betetzen dute euren lana, eta nahiz eta hasi besterik egin ez garen, parrandazaleen animoak gustura hartzen ditugu. Aurreneko maldak igotzearekin batera azkeneko argi postea atzean utzi dugu, eta orduan komeriak: bista ilunpetara ohi-tzen hasi aurretik kopetako argiaren laguntzaz ederki zapaltzen ditugu behar diren harriak. Oraindik fresko goaz, nahiz eta Erlora bidean malda gogorrak aurkitu, momentuko emozioari esker hankak bakarrik joaten zaizkigu eta zapaltzen duguna soilik ikusten dugunez, urrunekoak ez gaitu kezkatzen. Tartean burua altxatu eta ipurtargien manifa baten antzeko irudiak ikus daitezke.

Konturatu orduko korrika eta presaka jaisten ari den jendearekin gurutzatzen hasi gara, Erlo puntarra hurbiltzen ari garen seinale. Hortxe dago gure ibilaldiko aurreneko gurutzea. Fresko egiten du eta gehiegi gozatzeko denborarik gabe, beherantz abiatu gara, Aittolako gurutzea dugu hurrengo jomuga. Aittola inguruko pagadietan txorien bertsoak entzun daitezke, neurri eta doinu librean, baina dotore kantatzen dute. Kopetako argitxoa itzeldu

eta alboko lagunari egun-ona eman diot, ordu artekoa amets bat izango balitz bezala.

Aittolako bazka lekura iristearekin batera bigarren irribarrea kanporatu zaigu, Aittolako gurutzea esku-eskura daukagu eta begiekin geureganatu duguna eskuarekin laster batean ukitu dugu. Hortik Aittolako txabolara abiatu gara, bigarrenko kontrol gunera. Ederki sartzen da salda beroa eta ederki sartzen dira jendearen aurreneko hitzak. Denbora gehiegi galdu gabe, galipota gainetik hirugarrenko gurutzera abiatu gara, dagoeneko talde majoa osatu dugu, erritmoak baino gehiago hizketaldiek markatzen dute taldearen egitura. Gustura goaz, erritmo bizian baina lasai. Sargoateko gurutzeari bertsotan egin diogu agurra, argazki bat edo beste atera eta Hiru-kurutzetako malda gogorrak irensteko prest zangoak martxan jarri ditugu. Maldak gora, aurreko hizketaldiek arnas doinuei pasatu diote testigua. Hiru-kurutzetako gurutzea ezkutaketan jolastu zaigu igoerako azken zatian, baina azkenean ‘Hiru-kurutzeta zapo’ eginez aurkitu dugu. Ibilaldiko laugarren gurutzea eta oraindik sasoiko. Motxilatik mapatxoa hartu eta gure burua kokatzen saiatu gara. Hurrengo jomuga Irimo, baina tartean Gorlako hamaiketakoaz gozatzeko parada izango dugu, martxan ba.

▶ **IRIMO.** Gorlako borda jendez gainezka dago eta mahaiko aberastasunak ez du preziorik. Momentu hori behintzat lasai hartzea erabaki dugu. Tripa ondo bete eta ibilaldiaren bigarren zatia gustura, indarrez, ilusioz eta kantuan hasi dugu. Irimoko gurutzea ezagutzeko irrikaz.

Taldean beti dago inguruak ezagutzen dituen norbait eta, egia esan, ez da batere gaizki etortzen. Orain guztiok aldapa horren zain gaude. Beno, ez zen horren gogorra, irudikatutakoa askoz gogorragoa zen. Irimoko gurutzea eta, batez ere, bertatik jasotzen diren bistak ikusgarriak dira, mendi horrekin ezusteko polita hartu dut. Zumarragara azkar jaitsi gara eta azken aurreko gurutzea izazpikoa dugu. Hankak nekatzen hasiak dira, baina ilusioak goraka dirau. Oletako gurutzean aurre ospakizunetan murgildu gara, azken bederatzi kilometroak egiteko indarrak nonbaitetik hartu behar eta.

Azkoitian azkenean. Egun biribila atera zaigu. Ibilaldi ederra. Jende jatorra. Eta hurrengo urtean nola ez, Azpeitiko ibilaldira mendi zale oro.

HILEKO ESAERA ▶

Euskararen egoera hobetzen guztiok saiatu behar dugu

UZTARRIAK

1.000 BAZKIDE BAIETZ!

Bazkideei galdetuz ▶

Zergatik zara Uztarriako bazkide?



“ Herritarrek herriari buruz eginiko albisteak jasotzea denoi komeni zaigu”

AITOR SORAZU ▶
etxeko gizona



“ Aldizkaria aproposa da herritarrentzat eta bazkide izateak merezi du”

BEGOÑA AZKUE ▶
irakaslea



“ Euskararen alde egiteko gauza erraz bat da bazkide izatea”

AZUCENA LAKARRA ▶
etxeko andrea



“ Etxean jasotzen den informazio guztia errentzat ez da ezer ordaintzen”

PEDRO OTAEGI ▶
aktorea



“ Eskura informazioa iristeko lan egiten da eta ordaintzekoa da hori ere”

NEREA UGARTE ▶
Koru zuzendaria



“ Uztarriako bazkide izanda beste herrietan ere jasoko düzu aldizkaria”

ANE GOENAGA ▶
kanpoko bazkidea



“ Kultura zabaltzeko tresna egokia da eta lagundu egin behar da”

JOXE MARI GALARRAGA ▶
bibliotekaria



“ ‘Hitza’-z eta aldizkariak gain, liburuak modu onean lor daitezke”

BENANTXIO IRURETA ▶
mendizalea



“ Horrelako zerbaiti laguntza ematea merezi du”

MIRARI ARANBURU ▶
dekoratzailea



“ Euskara eta kulturaren alde zerbait egiteko aukera ona da honako hau”

AITOR AGIRIANO ▶
bidesariko langilea

855 bazkide gara. **ZU?**

▶ Bazkide egitea urtean 24 EURO besterik ez dira

▶ PRODUKTUETAN ABANTAILAK izango dituzu

deitu 943 15 03 58ra

Trauskil ▶ Jon Berdejo



Galdetuz ▶

Udalekuetara
joateko
asmorik ba
al duzu?

BEÑAT ALDALUR ▶

9 urte



"Aurten eman dut lehen aldiz izena. Barriako udalekuetara joateko. Baina ez

zait tokatu. Aurtengoz behintzat, ez naiz joango, baina gustura joango nintzateke".

NAROA LOZANO ▶

9 urte



"Ez, ez dut ionoiz izenik eman eta ez naiz inoiz joan udalekuetara, baina gustura joango

nintzateke udan. Beharbada, datorren urtean-edo joango naiz egun batzuetarako".

RUBEN MONTORI ▶

11 urte



"Aurreko urte batzuetan joan izan naiz Urduñara, Arabara. Aurten ere apuntatu naiz

baina ez zait tokatu egin zuten zozketan. Beraz, hemen geldituko naiz".

MAITE AZKUE ▶

9 urte



"Ez naiz behin ere joan eta aurten ere ez naiz joango, baina gustura joango nintzateke.

Agian, hurrengo urteko udan joango naiz nonbaitera".

Hau ▶

Indarra



Aitor Aranguren

Ba da indarra bazterretan eta alkohola tartean bada zeresanik ez. Ostiraletan Azpeitiko gaua hilda dagoela egia da, baina larunbate-tan badirudi aste guztian metatutako indarrak bat-batean askatzen direla, batzuegan behintzat. Ez da giro, trafikoko seinaleak okertuta edo ondotik aterata, zuhaitzak puskatuta, loreontziak iraulita, aulkiak eta hesiak ibaian, bakean dauden autoak kolpatuta.... Gainera, lepo gainean materia gris gutxiena dutenek 18.000 zaldiko karro super-dotorea martxan ipini, ondo berotu eta pneumatiko erdia asfaltoan uzten dute, sentazio super-fuerteak sorrarazten publikoarengan. Badira gauean pertsonaia berezi batzuk ere; horiek, luma dotorez jantzitako hegaztiak bailiran, autoaren lau atek ireki eta musika topera ipintzen dute super-ondo entzuteko, aldameneko etxean jendea lo egin nahian dabilela axola gabe. Beste batzuk, berriz, hankartean moto xahar bat ipini eta azkar ez dira joango, baina zarata atera bai, *la hostiako* zarata.

Politika ere indarren erakustoki nabarmena da eta, bereziki, asteburuetan. Irudimena asko lantzen da gainera, eta material ugari erabili. Azpeitia ez da salbuespena, eta aspaldian nahiko baketsu badago ere, ikusi eta sentitu ditugu pankartak eta pintadak, panfletoak, irainak pegatinetan, manifestazioak, kutxazainak erreta, telefono-kabinetako, bankuetako eta dendetako kristalak (batzuenak) hautsita, mamuen bezalako adierazpen teatrofestiboak (non ote dabilta aspaldian?).

Dena den, taldean eta jendaurrean gizakia lotsagabea da, baina estasis alkoholiko edo politiko baten ondoren bakarka eta gantzontzilotan ezer ez. Kale eguzkitsu batean gizon super-indartsu hauekin gurutatu eta denak burumakur. Eskerrak asteburuan horrenbeste indar erakutsi eta gero, astean agujetak izaten dituzten.

Apunteak ▶

GORA.

Foru Aldundiak Gipuzkoa osoa lotuko duen bidegorri sarearen plana egin du, eta, besteak beste, Azpeititik pasatuko da. Albiste ona da.

BEHERA.

Berririo iritsi da lapurreten mamua herrira. Azken asteotan Nuarben pantano inguruan eta zentroan –Harzubia kalean– izan dira azken lapurretak.

ZALANTZA.

Loiolabideko saihezbidean hasi dira errotonda egiten. Prefabrikatuta ekarri dute, zatika. Ikusi egin behar urtea bukatu aurretik amaituko ote dituzten bertako lanak.



Loiolabideko saihezbidea. N. URANGA

GALDERA.

Dagoeneko esan al daiteke azpeitiarrak azkoitiarren pare direla pilotan?

Uztarria.com ▶

Inkesta.

Urrestillako festak datoz.

Ba al duzu joateko ohiturarik?

- ▶ Bai. %17.
- ▶ Ez. %38.
- ▶ Ez, baina joango naiz. %3.
- ▶ Ez, eta ez naiz joango. %33.

Orain dagoena.

- ▶ Inkesta. Zein da kanpoko igerilekuari buruz duzun iritzia??
- ▶ Etabaida. Uztarriak kultur taldeak eta programazioa koordinatzea zer iruditzen?

Hemeroteka ▶ Xabier Azkargorta (futbol entrenatzailea, 'Berria')

Futbolaren zentzuaz

Niri izugarri izorratzen dit futbola gizartearen min-bizi gisa erabiltzen duen jende horrek. Badirudi futboleko jendea ezjakina dela, futbolzalea izatea ez datorrela bat kultur alorrean aritzearekin, zinemara edo antzerkira joatearekin, literaturarekin... Entrenatzaile batek politikaren inguruan hitz egiten badu, isiltzeko eta bere lanean aritzeko esaten diote, ez baitu horretaz ulertzen. Zer gertatzen da, guk ezin dugu kezka politikorik, kulturalik eta ideologikorik izan beste edonork bezala? Futbola gure bizimoduaren atal bat da, kasu honetan gure ogibidea. Baina, kazetari bat joan daiteke futbolera edo kultur ekitaldietara, filoso batek idatzi dezake... Orduan, guk ere bai. Kontzertu batera joatea kultur ekintza bat izatea, eta futbol estadiora joatea ekintza basatia dela esatea ez da bidezkoa.

Bestetik, niri barregura eragiten dit esaten dene-

an kirola eta politika ez direla nahasi behar, oso hipokrita iruditzen zait. Politiko batek badaki, igandean arratsaldeko bostetan, 40 milioi lagun telebista aurrean jartzen duen fenomeno bat dagoela. Politikari batek ez du hori oharkabea pasatzen uzten. Futbola horren sartuta dago etxean, horren sartuta dago gizartearen, horrenbeste lotzen da hainbat gauzeekin... Futbolapolitika hutsa da. Ezetz dioneak hortaz aprobetxatzen delako da.

Zergatik joan behar dute futbolak batetik eta politikak bestetik. Futbola noren menpe dago? Federazioaren esku. Hau noren menpe dago? Kirol Kontseilu Nagusiaren esku. Kontseiluaren ardura duna nor da? Kultura Ministerioa. Beraz, zertaz ari gara hitz egiten? Gainera, argi dago; politikariek jendea eskuratu nahi dute eta jendea futbolera joaten da.

Erlijio aldizkaria

Aurreko udan irakurri nuen aldizkari batean aipatzen zen zerbaitek nire atentzioa bereganatu zuen. Ikusten denez, duela lau urte Italia-ko *MicroMega* izeneko aldizkari batek zenbaki berezi bat argitaratu zuen Erljioa eta Filosofiari buruz. Hiru teologo eta filosofo talde baten arteko eztabaida agertzen omen zen bertan. Gaia hau omen zen: "Nola egiten diete aurre erlijio ezberdinek, kristautasunak bereziki, ideologi ezberdinek gaur egun bizi duten krisiari?". Eta gaiari sarrera emanez, Italiako pentsalari ezagun baten gogoeta eskaintzen omen zen.

Arrakasta handia izan zuen aipatutako argitalpenak. Harrituta geratu nintzen, eta honela nioen nire baitan: halako oihartzuna al du bada, oraindik erlijioak? Ez al da horrelako zerbait falta gure artean? Ez al litzateke egokia horrelako gaiak plazaratuko litzuzkeen aldizkariren bat?

Iaz sortutako kezka, itxura denez, ez zen nirea bakarrik. Aurreko udazkenean iritsi zen nire eskuetara, aurten kaleratzekoa zen *Hemen* izeneko erlijio gogoetarako aldizkari berri baten harpidetza orria.

Joxe Arregi azpeitiarra –Oñatz bailarako semea– dugu aldizkari berri horren sortzaile eta zuzendaria. Joxek berak, duela hilabete gutxi egin-dako elkarrizketa batean, aipatzen du aldizkari berriaren helburua zein den: "Erljio gogoetarako aldizkaria izango da. Ez du 'goi mailako teologia' zaila egin nahi; gogoeta sakon eta samurra egin nahi du, gaurkoa eta bizia; kristau fedea eta erlijio gaiaz gogoeta egin nahi duen irakurlegoentzat probetxuzkoa. Erronka handia da, bai; baina Elizarentzat eta euskal gizartearentzat beharrezkoa dela uste dut".

Ale pare bat eskuetan ditugu. Hirugarrena ere ate joka dugu. Ea egiten ari diren ahalegina, eta erlijio gaiaz euskaraz pentsatu eta jarduteko aukera iraunkorra gertatzen den, emankorra bihurtzen zaigun.

◀ Eta beste



Kepa Susperregi

Matadeye

Iñaki Segurola ► **Euskal Filologian lizentziatua da Iñaki Segurola, eta gaur egun Euskaltzaindiko Hiztegigintza saileko langilea da. Besteak beste, 'Euskaldunon Egunkaria'-n zutabegilea izandakoa da. Azpeitiko gaztetxearen hasierako garaietan mugimendu hura gertutik ezagutu zuen.**

AZPEITIA 2020

► Kultura

Ez da erraza kulturaren arloa noraino heltzen den zehaztea. Nolakoa izango da kultura bera osotasunean 2020. urtean? Izango al du azpiegitura itxurakorik? Gune bakarra izango al du? Nolakoa izan beharko luke?...

Kulturaz jarduteko eskatu dit, Azpeitiko kultura 2000 eta eztaikiztenbatgarrenean. Kultura eta etorkizuna, ederra pare: bakoitza bere aldetik tristura emateko modukoak, eta batera, berriz, atzerakada.

Ez naiz, nola esan?, kulturaren alde, alderdikoa, ez bete-betea behintzat. Ez nago haruntzago ere, edo gauza horien gainetik: honuntzago, beherago, barrenago nago, edo egon nahi nuke. Poetiko jarriko naiz: aspalditik nago errekarako uraren ibiliari ederretsia: beherago eta beherago beti eta momenturo. Biziaren uretan beherago beti. Eta bizia, bizi-nahia, bizi-amorrua edo dena delakoa nekez ezkontzen da kulturarekin: hau gora begira dago, biziaren uren kontra tematzen den izokin ergel baten pare. Kulturaren oso interesatuak daude estatua eta bankuak, kultura sustatzen eta kudeatzen, berek dioten bezala, eta hori, munduko gauzarik naturalena da. Har dezagun adibide moduan irakurtzea: txikitatik erakutsi digute oso gauza ona dela irakurtze hori, eta egin beharrekoa. Zer esango dugu ba? Askok eta izugarri irakurtzen duen jendea ezagutu dut bazterretan. Eta? Jende bizirik eta argi alerik ez, eta bai besteak baino giza-jenero motelagoa, hilagoa, pedanteagoa eta tristeagoa. Datuz eta informazioz zopaturik dagoena ez balego bezalaxe da: hura beti haruntzago dago, ez honuntzago. Kultur-gauzak, guneak, eraikinak eta abarrak... egin ditzatela nigatik, egin dezatela Soreasuko zera berri hori ere, baina egin ditzatela ahal den txukunena, aldrebeskeria handiegirik egin gabe: aldrebeskeria handietarako hor daude, lehendik ere, industria, azpiegiturak eta lanpostuen izenean egiten diren gainerako azio beltzak.

Beste gauza bat ez naizena da "herri osoa", "gizarte osoa" eta holakoak gauza guztietarako kontuan hartzen dituztenetakoa. Osoaren (edo gehiengoaren) onarpena eta bedeinkazioaren zain egotea (gehiengoak barneratu eta, inkesten arabera, ontzat jotzen duenari begira egotea) da sekula ezer ez egiteko modurik seguruenak. Beraz, herria injineruz, etxe-trapitxeroz, literatoz eta artista multimediaz betetzen dela? Ez da hain gauza

beltza, baldin-eta bestelako jendea, jende eroa (baina deklaratu gabekoa), inon erraz kabitzen ez dena, kontrako eztarrikoa, herri osoaren bedeinkazioaren zain ez dagoena azaltzen den bitartean. "Hi ere nonbait kabituko haiz!", botako dio beti helduak gazte edo heldugabeari, baina erraz kabitzen ez den jendea ez da erraz kabitzen ez lantegian, ez eskolan edo unibertsitatean, ez kiroldegian, ez ideologia batean, ez erakunde batean, ez diskoteka inoxidableetan, eta ez bikote herdoilduetan. Nekez errendi daiteke arautegi eta ordutegi batzuen arabera moldatutako kultur-etxe, gune edo kaiola batean ere. Goiko jende horrek usteko du gauza ona eta osasungarria dela dena jende txintxo, otzan, esaneko eta kabi-erraza sortzea herrian, baina kontrolpe osoan ez dago lizuna, hautsa eta ustela besterik, eta ez dago psikologia sozial asko jakin beharrik horrek pertsonetan ere berdin balio duela ikusteko.

► **MATADEYE.** Beraz, mundu guztiak lehentxoago edo gerotxoago nonbait kabituko behar duela? Konforme, baina ez denak edozer moduz, ez den denak berdin. Agintari jaun-andre azpeitiarrak: behar da herrian toki bat erraz kabitzen ez den jendearentzat, ordutegietan eta arautegietan kabitzen ez den jendearentzat; behar da herrian Azkoitian (Matadeixe) eta Tolosan (Bonberenea) daukatena, zeuen alderdikideek berek ez eman, baina bai libre utzi dutena. Eta esango didazue gauzak ez direla hola-ta-hola egiten, adituen txostenak eta bideragarritasun planak behar direla, kudeaketa eta jarraipen egokia, nik esango dizuet pentsatze-

► **MATADEYE** ►

Behar da herrian toki bat ordutegi eta arautegietan erraz kabitzen ez den jendearentzat

Hustasunaren betea

ko gauza horiekin guztiekin nola gauden minbizi urbanistiko ergel batean itoak, lur guztia jan beharrean, etxe hutsak usteltzera kondenatuak; horixe dakar hazi-behar ero horrek, panorama horren erdian, alfer samarrik dauden tokiak betetzea eta bi-ziaraztea da egin litekeen gauzarik zentzuzkoena. Inori ezer kendu gabe, gainera.

Toki hutsak betetzera jarri ezkerro, zer beteko genuke kabitu ezineko jendea nonbait kabi dadin?

Herri hau pixkat ezagutzen duenak laster hutsik geldituko den komenturen batekin pentsatuko

luke, baina ez, ez dugu horrenbeste eskatuko (kulturak horrelakoak zerbaiten zentru, gune edo erakustoki bihurtzen ditu, sekula ez bizitoki). Orduan zer? Ba, tituluaren esana dagoena, eta zenbait jendek eskatu duena: matadeye.

Azpeitiak erakutsi behar dio munduari bailara honetan matadei bat dagoen tokian

ez dagoela beti matadeixe, eta matadeye ere egon litekeela. Ez dago gogo faltarik.

Ez naiz hasiko esplikatzeko zer izan behar lukeen matadei horrek: ez dut masterrik egin kultura alternatiboan. Hori arian-arian egiten da; eginak erakusten du zein zen egitekoa. Orain dena da proiektua eta egitasmoa, baina proiektuen azpitik ere bada zer egin: proiektu guztien azpitik gogo dago, zerbait egiteko (edo desegiteko) gogo. Gogo garbi bat, eta irekitasun eta autonomia osoa: goiko kontrolik eta kudeaketarik ontzat hartzen ez duenak ezin onar dezake beste nonbaitetik —goragotik beti ere— datorren kontsigna eta agindurik; ezta eraginkortasunaren eta horrelako kontzeptu exekutibo-militanteen izenean ere. Beste gauza bat da koordinazioa eta elkarren berri jakitea. Banderak sobran daude.

Azpeitiko etorkizuneko kulturaz zerbait eskatu eta, nolabizi orain egin behar den, ez etorkizun eta ez kultura astindu ditut. Beheragoko bizia edo bizinahia famatu ditut, eta hori dena non, eta hiltze batean. Arrazoiak horretarainoxe ebaki dizkit bideak. Izan bedi, beraz, ganaduari bizia kentzeko balio izan zuena ganadu izan nahi ez dutenen bizileku, juntaleku, jolasleku edo auskalo zertarako leku.

Joxin Iturriotz ▶ **Soziologian lizentziatua da Deustuko Unibertsitatean, Bizkaiko Bertsotze Elkartearen idazkari izandakoa da, eta orain urte gutxi batzuk ‘Urolaldea Bertsolari’ liburuaren egilea izan zen**

Atzo, 2020ko ekainaren 26an, ostirala, estreinatu zuen *Hustasunaren betea* lan berria Trikuharri antzerki taldeak, San Agustin aretoan. Lan esperimental, modernoa, ausarta. Txalo zaparrada ederra jaso zuten antzezle gazteek. Akats bat bilatzekotan, eszenen arteko uneak laburtu beharra. Zaila da beste akatsik aipatzea. Meritu handiagoa, beraz, ohiz kanpoko lan esperimental izanik. Ondo baino hobeto prestatu dute emanaldia gazteek.

Horretarako astero-astero elkartu ohi dira antzezle gazteak, hutsik egin gabe, Basazabal Kultur Etxean. Hainbat talderen egoitza da Basazabal Etxea, tartean Trikuharri antzerki taldearena. Gainera, Basazabaleko patioak eta egitura bereziak aukera aparta eskaintzen die eszenografia ezberdinak prestatzeko.

Orain hamar urte zabaldu zuten Basazabal Etxea. Trantsizioaren hasieran Udalaren esku gelditu zen, eta behar-beharrezko mantentze-lanak egin ondoren, proiektua egin zuten. 80ko hamarkada zen. Baina Udaleko kajoietan ahaztuta geratu bide zen, hautsak hartuta. 2005ean proiektu berria egin, eta 2007an ekin zitzaion lanari. 2010eko urtean zabaldu zuten, Gipuzkoako agintarien presentziarekin, eta hori da gaur egun hainbat talderen egoitza.

Ez da ahaztuta egon den eraikin bakarra. Antzerki-lana estreinatu zen San Agustin aretoa Durangoko San Agustin elizaren berdin-berdina zen, eta eliza hori 1976an egokitu zuten erakusketarako, eta 1987 eta 88ko lanek areto balioanizdun bihurtu zuten (1998an eta 2013an beste egokitzen batzuk egin zituzten). Azpeitian, 1980ko hamarkadaren amaieran, eta aurreko eredia

hartuz, ia aldaketarik gabe prestatu zuten proiektua, burutu ez zena, ordea. Azkenean, 2007an proiektu berria bideratu, eta 2012an EAEko lehendakariak inauguratu zuen, Euskadiko Orkestraren emanaldi batekin.

Antzekoa gertatu zen Soreasu zine aretoarekin ere. Halere, kasu honetan, proiektua berriagoa da. 2004an bilerak egiten hasi ziren Azpeitirako kultur plangintza bat burutzeko. Eta Soreasu berri- tzea eta egokitzea izan zen lehentasunezko helburuetako bat. 2008an herriko agintariek Soreasu zine areto berria inauguratu zuten, Zine-klub taldearen bi garai lotuz, *Mateo Txistu* laburmetraia eta *Bizitza lege* luzemetraia estreinatuz.

Katearen hasiera izan zen. Gero, Basazabal eta San Agustin etorri ziren, 2010ean eta 2012an. Eta, dakizuen bezala, Iturriaga Kultur Etxea egin zuten, beste hainbat kultura talderen egoitza dena. Hau berri-berria egin zuten, talde-entzako lokal premiei erantzuteko.

Azpian gazte lokala antolatu zuten, gazteek beraiek gestionatua. Gaztetxea itxi zutenetik gazteek ez zuten beraien esparrua eta ekintzak antolatze-ko aukerarik izan. Eta ia hogeitaz ziren gazte- txi izandako hura indarrez itxi zutela. Bazen garaia, bai gazteek, bai kultura taldeek, egoitza egokiak izan zitzaizkien.

Atzokora itzuliz, arrakasta azpimarratu beharko genuke. Latz egin dute lan Trikuharriko antzezle gazteek. Noski, horretarako ez dira aparte eskaintzen diren kultura baliabideak eta egoitzak.

Gozatu genuen antzerkia ikusten, eta merezitako txaloak jotzen. Ondoren, Döner taberna kurduan kebab bana afaldu genuen. Goxoa hura ere!

Egun konpletoa, bai, atzokoa, 2020ko ekainaren 26a, ostirala.

azal zuri eta sustrai BELTZAK

Olatz Prat gazte azpeitiarrak,
sustrai beltzeko musika doinuak
hurbildu ditu herriraino: jazza

▶ Testuak eta argazkiak: Amaia Mendizabal



LEHEN KONTZERTUA.

Lehenengo urtean, abenduan, eskaini zuten beraien lehen kontzertua Olatz Pratek eta Bea Hurtadok. Publikoarekin izan zuten aurreneko harreman hura Hondarribian izan zen, Banako tabernan (ordukoak da argazkia). Lehen emanaldi hartan, gainera, zuzeneko diskoa grabatu zuten.

Jazza, oro har, beltzen musika omen da, edo hala saldu izan dute beti behintzat. Azpeitian ere ez omen dago zaletasun handirik, tabernetan-eta ez baita entzuten. Baina gauzarik arraroenak gerta daitezke inguru hauetan: Olatz Prat gazte azpeitiarra jazz talde bateko abeslaria da. Haren ahotsak eta Bea Hurtado lasarte-arraren piano doinuek Zuri & Beltz taldea osatzen dute, eta hasiberriak izanik ere, dagoeneko egin dute emanaldiren bat edo beste azken hilabeteetan.

Taldearen izena hitz jolasa omen da, euren izaeraren isla: "Hasieran, & sinboloaren ingelesezko irakurketaren bidez, gure asmoa 'Zurian beltz' adieraztea zen; badakizu, zuriak izanik ere beltzen musika egiten dugula", dio Pratek. Azkenean Zuri eta Beltz bezala gelditu dira: "Betiko galdera da: nor da zuri eta nor beltz, baina ez dago horrelakorik". Izan ere, zuri izanagatik, biak dira era berean beltz, bai behintzat abesteko orduan.

Baina, zergatik jazz? Estiloa bera gustuko dutelako, hori hasiteko. Baina, gainera, jazzak jolas-erako aukera asko eskaintzen

omen ditu: "Inprobisazio kontuetan-eta sartzen bagara, bai ahotsarekin eta bai instrumentazioarekin jolas musikala etengabea da: pianoak zerbait egiten du, eta ahotsak erantzun egiten dio, edo alderantziz". Dena dela, ez diote euren buruari etiketak jarri nahi, osagarri nagusia jazza izanik ere, "soul" edo "blues" ukituak ere ba omen dituzte eta. Hori bai, beti ere musika beltza hartuta abiapuntutzat.

Eta ildo horietatik, dagoeneko lehenengo urtemuga ospatzeko zorian dago Olatz eta Bearen taldea. Iaz, uztaillean ezagutu zuen elkar bikoteak. "Juan Gartzia idazlearen bitartez jarri ginen harremanetan; bion ezaguna da. Hark bazekien nik abestea gogoko dudala, eta bazekien, era berean, Beak ere pianoa jotzen duela. Eta beno, afaritxo baten bitartez elkartu ginen hirurok eta hor hasi zen dena". Lehen bilera hura eta gero, uda lasai hartu zuten, eta irailean hasi ziren entseguekin.

Bi hilabeteren buruan iritsi zen lehenengo ekitaldia: Hondarribian, Banako Tabernan. Emanaldiaz gain, gau hark beste fruitu batzuk ere eman zituen: Zuri &


Jazza euskaraz

Zuri & Beltz-ek, berriz ere topikoei aurre eginez, jazza euskaraz abasterik badela frogatu du: diskoko hamalau kantuetatik bost euskaraz dira. Kantuok, izatez ingelesezkoak izanik ere, Juan Gartzia idazleak moldatu ditu euskarara. "Juan Gartzia ere jazz-zale porrokatua da, eta abesti ugari zuen aurrez euskaratua. Hala ere, geu izan gara lehenenak abestiok euskaraz jendaurrean abesten". Dena dela, Pratek hasieran ekimen hori ez zuen oso argi ikusten: "Ez zidan grazirik egiten; koplak ingelesez abestea bezala izango zela nioen. Baina egia esan, jendeak oso ondo barneratu dituela ikusi dugu".

Beltzek bere lehenengo zuzeneko diskoa grabatu zuen. "Zuzeneko izatean izatez bere kalitatea ez da oso ona, baina banatzen hastea erabaki genuen, gehienbat tabernetan edo ezagunei". Eta lagun eta ezagunen bitartez, azkenean dezente zabaldu da diskoa. "Gainera, ez gara saltzen ari, doan banatzen baizik. Diskoa baino gehiago, aurkezpen gutuna dela esango nuke", dio Pratek.

Hortik aurrera, beste lau emandaldi izan ditu taldeak: lehenengo biak Donostian –Sebastopol eta Ondarra tabernetan–, hirugarrena Hernanin –Gunean– eta azkenekoa, ekainean bertan, berezi samarra izan da, ezkontza batean girotzeko kontratatu baitzuten Zuri & Beltz.

► **PRATEN IBILBIDEA.** Baina nolakoa izan da Olatz Praten ibilbidea musika munduan? "Nik uste zaletasuna amaren sendiaren aldetik datorkidala, bertan guztiak direlako erdi-musikariak. Ni neu ere txiki-txikitatik hasi nintzen abesbatzetan abesten". Horretaz gain, azpeitiarrak topatzen zituen gustuko abestiak kantatzeko paradak: "Gure etxeko sukal-



Olatz Prat abeslari azpeitiarra, Enparan Dorretxe atzean.



» deak oso akustika ona dauka, eta hantxe jarduten nuen nik, gustuko diskoak jarri eta abesten. Orduan ere soul-eta antzekoak kantatzen nituen. Amets asko egiten nituen orduan". Antxieta eta Barrene-txea abesbatzetan izandako es- perientziaz gain, Zuri & Beltz ez da izan harentzat taldea osatzeko lehenengo saiakera.

Jagoba Astiazaran zestoarrare- kin ere jardun izan du; orduan ere Prat bera abesten eta Astiazaran pianoarekin. Bikoteak 2002. urte- ko Gipuzkoako Kantu Txapelketa- ko lehenengo saria irabazi zuen. "Esperientzia polita izan zen eta sariaren ondoren bi emanaldi egin genituen; bata, Zestoako festetan izan zen, hantxe biok pla- zako arkupeetan jarrita geure piano eta guzti". Ez da hor buka- tzen Pratek Zestoarekin duen ha- rremana, egun ere desagertutako Lin Ton Taun taldean ibilitako hiru kiderekin kolaborazioak egiten baititu. "Orain dela pare bat hila- bete hasi ginen talde horretako kide izandako Joseba (ahotsa), Raul (gitarra) eta Biti (baxua) el- karrekin zerbait prestatzen, baina oraingoz ez daukagu kontzerturik eskaintzea buruan".

Abesteaz gain, ordea, azpeitia- rrak badu erronka berri bat uda honetarako: abestiak konposa- tzen hastea, hain zuzen. Izan ere, laster baino lehenago euren abesti propioak plazaratu nahi baldin badituzte ere, orain arte

“Nik uste zaletasuna amaren sendiaren aldetik datorkidala, guztiak baitira erdi musikariak”

“Euskal Herrian ez dago jazz musikarentzat publiko zabalegirik, zaletasuna oso mugatua da”



“Eszenatokian nahiko lotsagabea naiz, ahal dudana guztia ematen dut jendeak goza dezan”

OLATZ PRAT ▶ abeslaria

bertsioak kantatu izan dituzte. Honetan ere hainbat zailtasun izan dituztela baieztatzen du. "Ahotsa eta pianoa izanik osagai bakarrik, dagoeneko nahiko muga ditugu, zenbait abesti ezin ditzakegulako biok bakarrik jo". Dena dela, disko asko entzunez eta abestiak proban jarritz, "hau horrela egin al daiteke?" behatuz, azkenean nahiko lan itxurosoa gelditu zaiela dio.

Euskarari dagokion tartea egin arren, Zuri & Beltzek, oro har, in- geleseaz abestu ohi du. Kantuok jazzeko estandarrak omen dira. "Kantu hauen bertsioak milaka abeslarik kantatu izan dituzte; tar- tean guk eredutzat hartzen ditu- gun Billy Holliday edo Ella Fitzge- rald bezalako artistek. Ohiko jazz abestiak dira".

▶ **ETORKIZUNA.** Etorkizunera begira, taldeak itxaropena Kutxak eginiko proposamen batean du: erakunde horren babespean, Zuri & Beltzek irailean kontzertu bat eskainiko luke Donostian Kutxa- ren Kultura aretoan. Eta jendeak euren lana gogoko baldin badu, taldea Gipuzkoako 80 herritan egingo den kontzertu zirkuituan sartuko litzateke.

Horretaz gain, ziurrenik denbo- ra gutxi barru taldeak kide berriak izango ditu, Olatz Pratek eta Bea Hurtadok euren doinuei kontra- baxuarena eta bateriarena gehitu nahi dizkielako. Azpeitiarrak argi

dauka aurrera begira hori onura- garri izango litzatekeela euren- tzat: "Behin taldea osatzen dugu- nean, biok bakarrik egonda baino aukera gehiago izango ditugu, hori seguru!". Dena dela, berak onartzen duen bezala, egia da Euskal Herrian ez dagoela jazz musikarentzat publiko zabalegi- rik: "Badaude ulertzen duten lau edo bost lagun, baina gainerako- an zaletasuna mugatua da. Jen- deari jazza musika atseginia iruditzen zaio, baina hortik au- rrrera...".

Praten ametsetako bat etorki- zunean musika munduan aurrera egitea da, ahal den neurrian behintzat. Izan ere, gazte azpei- tiarrak dioenez, musikarik gabe ezin omen du bizi; "goizean jaiki- tzen naizenetik oheratu arte musi- ka entzuten egoten naiz". Eszena- tokia ere bere aberri egin du da- goeneko: "Horretarako oso lo- tsagabea naiz; urduritasuna ere badago, jakina, baina pixka bat ondo etortzen da. Eszenatokian zaudenean, badakizu jendea zeu ikustera etorri dela, eta ahal duzun guztia eman behar duzu, jendeak goza dezan".

Azpeitian emanaldi bat eskaini- tzea, berriz, oraingoz ez dago Olatz Praten planen artean, ez bailitzateke eroso sentituko. "Lo- tsatu egingo nintzateke. Kanpo- an gauzak ondo doazela ikusiz gero, etorriko naiz herrira beran- duago".

Koh Tao

OSAGARRIAK

Foru Ibilbidea, 3 Tel.: 629 688 193
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)

LUBA

- AHOLKULARITZA FISKALA,
LABORALA, KONTABLEA
- FINKEN ADMINISTRAZIOA

Enparan kalea, 45

Tel.: 943 15 75 25 Fax.: 943 15 72 75
e-mail: luba.ase@euskalnet.net

KIRURI

JATETXEA

Loiola hiribidea, 24

LOIOLA - AZPEITIA

Tlfnoa.: 943 81 56 08

Faxa.: 943 15 03 62

Uztarria-Udala Komunikazio hitzarmena ▶ (osoa, www.uztarria.com-en)

Azpeitiko Udalak eta Uztarria Kultur Koordinadorak hitzarmena lortu dute beste arlo estrategiko batean ere: Komunikazioan. Ekainaren 11n sinatu zuten. Hitzarmenaren puntu nagusiak:

Iraupena. 2005eko abendura artekoa da. 2007a arte luza daiteke.

Autonomia. Hitzarmen berrian ere esaten da Uztarriaren hedabideak "autonomoak" izango direla. Oraingo hitzarmenaren arabera, Udalak aldizkarian ez ditu bi orrialde propio izango, berak egindakoak –2000an eta 2001 ean eduki zituen–.

Diru laguntza. Uztarriak, Komunikazio

proiektu honetan, 2004rako 91.820,80 euroko aurrekontua dauka. Udalak 2004an 26.444,52 euro emango dizkio.

Publizitatea. Badu beste berrikuntza bat hitzarmenak: "Azpeitiko Udalak modu erregularrean bere iragarkiak sartu ahal izango ditu Uztarria aldizkarian".

Uztarriaren informazio gehiago jasotzeko

Bazkideren batek Uztarria barruko informazioa berriperean ez ezik, e-mailez jaso nahi badu, idatz dezala lasai.uztarria@topagunea.com-era.

Kultura koordinatu

Uztarriak herriko kultur taldeak eta herriko kultur programazioa koordinatzeko hainbat ekimen jarriko ditu martxan: karteldegia, direktorioa, urteko programazioa eta Kulturaldia.

joka ezazu uztarriaren TOURREKO PORRAN

Laugarren urtez jarraian, Uztarriak Frantziako Tourreko porra egiteko aukera ematen du. Hona parte hartzeko bete beharrekoa:

- 1. Aukeratzeko.** Apustu bakoitzean 9 txirrindulari –ordenean–, 2 ordeztako eta talde bat aukeratu dira.
- 2. Apustua.** Talde bakoitzeko 15 euro jokatu dira.
- 3. Egin beharrekoa.** Partaide bakoitzak inprimaki bat bete beharko du.
- 4. Apustua.** Txirrindularien batek ez irtenez gero, ordeztakoak hartuko dira kontuan, ordena errespetatuz.



Iban Mayo.

Ordezkoekin ere taldea osatu gabe gelditzen bada, ezingo da aldaketarik egin.

5. Sariak. Tourra bukatzean banatuko dira, Uztarriaren txosnan, Tour osoan lortutako puntuen arabera:

- ▶ 1. saria. Bildutakoaren %40.
- ▶ 2. saria. Bildutakoaren %20.
- ▶ 3. saria. Bildutakoaren %10.

Uztarriarentzat %30, beraz.

6. Deskalkifikazioa. Txirrindulari bat Tourrean deskalkifikatua izan arren, ez zaizkio puntuak kenduko.

7. Berdinketa kasua. Tou-

rra amaitzean, sarituetan berdinketa egonez gero, bien artean lortutako saria zati berdinetan egingo da.

8. Kalkulua. Txirrindulariko puntuazioa kalkulatu da.

9. Izen-ematea. Uztailaren 3ko 14:00ak baino lehenago Amaia, Urtzi, Etxe-Zuri eta Erreka tabernatan, eta Uztarriaren lokalean egin beharko da.

10. Prologoak. Prologo etapak ere puntuatu egingo du. Taldekako modalitatean jokaturakoan taldeek soilik puntuatuko dute.

11. Apustua. Saikapenak, apustua egin daitekeen tabernetan ostiralero eta www.uztarria.com webgunean egunero jarriko dira.

12. Azken hitza. Zalantzetan, azkeneko hitza Uztarriak izango du. ◀

egin zaitez bazkide UZTARRIAN

Zure datuak Uztarriari helarazteko aukerak:

- ▶ Julian Elorza Hiribidea 4, beheka eskubia (Azpeitia, 20730) ▶ 227 posta kutxa, Azpeitia
- ▶ uztarria@topagunea.com ▶ Telefonoa (eta faxa): 943 15 03 58 ▶ www.uztarria.com

IZEN-ABIZENAK ▶

NAN edo EHNA ▶

HELBIDEA ▶

HERRIA ▶

TELEFONOA ▶

E-MAILA ▶

KONTUKO 20 ZENBAKI (harpidedunek ez*) ▶

BAZKIDEAK ▶

Urtean. 24 euro.

Jasoko dituzu.

- ▶ Uztarria herri aldizkaria.
- ▶ Imanol Elias eta Joxe Takolo biografiak.
- ▶ Azpeitiko efemerideak, erdi prezioan (nahi baduzu).
- ▶ Mendi gida, erdi prezioan (nahi baduzu).
- ▶ Literaturtza.
- ▶ Urola-Kostako Hitza.

*HARPIDEDUNAK ▶

Uztarria diruz lagundu nahi ez baduzu.

Jasoko dituzu.

- ▶ Uztarria herri aldizkaria.
- ▶ Urola-Kostako Hitza.

U
855

bazkide gara dagoeneko Uztarrin; eskerrik asko denei

iraupen

PROBA

Josu
Arrieta ▶

Datuak.

- ▶ 1955.
- ▶ Azpeitia.

Ibilbidea

- ▶ 3. urtea Sabiñanigon.
- ▶ Argazki Elkarteko kidea da.

Ekainaren 19an izan zen Sabiñanigoko ziklismo proba, eta aurten ere azpeitiar ugari izan zen han; bai animatzen, baita parte-hartzen ere



IZEN-EMATEA.

Batzuk izen-ematea baieztatzen eta beste batzuk izena ematen, han elkartu ziren guztiak proba aurreko egunean, ostiralean, ekainak 18. Argazkian, ezkerretik bigarrena Iñaki Portilla eta hirugarrena Xebastian Orena Bixer.



BABES BILA.

Sabiñanigo-Jaca-Candanchu-Somport; lehenengo geldialdia. Hotza eta haizea. Gurutz Aldalur haizeari kontra egiteko egunkaria elastiko azpian sartzen.



PRESTAKETAK.

Proba hasi aurretik gauza asko prestatu behar dira. Garrantzitsua da bizikleta ondo prestatzea eta honi ere dorsala jartzea. Horretan ari da Roman Azkue.



ALDAPA GORA.

Ez da, ez, broma Marie Blanque igotzea. Ez da berehalakoan bukatzen, bestela galdetu Imanol Aizpururi zenbat sufritu zuen malda horietan bizikleta gainean.



SERIO.

Bideari begirik kendu gabe eta helmuga edo Marie Blaque gaina non dagoen begiratzuz, serio-demonio zihoan Joxe Mari Larrañaga Txato bizikleta gainean.



GELDIUNEA

Behin Marie Blaque igota, gelditu eta hamaiketako ederra egin zuten txirrindulariek. Ez zaie neke aurpegirik somatzen jan ondoren. Argazkian, ezkerretik hasita: Joxe Luis Odriozola, Iñaki Agirretxe, Xebastian Bixer eta Ana Mari Amenabar.

ANIMOAK.

Bizikleta gaineak ez dituzte bideko lagunak animo gutxi jasotzen. Txaloak-eta nahikoa ez eta pankartak bide bazterretan, errepidean izenak margotuta... Dena behar 205 kilometroko proba bukatzeko.



ERRETIROA.

Lainoa, euria, betaurrekoak lausotuta eta gabe, ezin. Jarraitu, ez jarraitu... Utzi egin zuen. Ez zen erabaki erraza izan. Eta damua azkar etorri zitzaion Juanjo Agirrerri: Marie Blanquetik 15 minutura aterri zegoen.



HELMUGA.

Kostatuta baina iritsi ziren gehientsuenak Sabinanigoko helmugara. Argazkian, gustura ageri dira Xebastian Bixer, Mamen Etxaniz eta Eli Etxeberria; hamar ordu eta erdian sartu ziren.



MASAIK.

Proba bukatu eta Ana Mari Amenabar suerteko izan zen, zain baitzituen lagunak igurtzi batzuk emateko.



JOAN...

Gurean ▶

MAIALEN LUJANBIO

▶ bertsolaria

“Hemen kantatzea garantia da”

E kainaren 9an Maialen Lujanbio eta Unai Iturriaga Enparan Dorretxean izan ziren bertsotan eta berriketan, Manu Robles-Arangiz Fundazioak antolatutako saioan.

Lehen aldia izan al da Azpeitian abestu duzuna?

Ez, Azpeitian lehen ere Soreasuko aretoan eta Santo Tomas egunez plazan bertsotan izana naiz.

Gustura kantatzen al da hemen?

Azpeitia bezalako herri bertsozaleetan garantiarekin kantatzen da. Hasi aurretik badakizu jende bertsozalea dela eta mundu hau ezagutzen duela.

Lanaz aritu zarete.

Bertsolaritza lan bezala hartuta jardun gara, bai, bertsotan eta hizketan. ◀



Ikasturte bukaera

Iritsi da uda eta horrekin batera bukatu da ikasturtea ume eta gazteentzat. Ekainaren amaieran ikastetxeek umeek jaialdiekin eman zioten bukaera ikasturteari. Hori izan zen irailetik ekainera bitartean ikasi dutena erakusteko aukera aparta. Argazkian, Juan Antxieta Musika Eskolako umeek Izarraitz pilotalekuan eskaini zuten kontzertua.



Euskal Bizikleta herritik bi aldiz pasatu zen

Ekainaren 4an bi aldiz pasatu zen herritik Euskal Bizikleta. Bi aldietan, Landeta auzoti; aurrenekoan Urrakira bidean eta bigarrenean Beizama aldera.

Gazte Astea lokala eskatu dute berriro

Urtero bezala, aurtengoan ere Azpeitian Gazteok Zer?! taldeak Gazte Astea ospatu zuen. Ekainaren 7tik 12ra bitartean izan zen, eta aste osoan ekitaldiak izan ziren. Lokala eskatu zuten berriro.



Azoka jendeatsua

Ekainaren 19 eta 20ko asteburuan, Erdi Aroko Azoka ospatu zen. Artisau eta animazio taldeak ikusiteko aukeraz gain, herriko hainbat eraikin zahar ere bisitatu ahal izan ziren. Jende asko ibili zen.



EKAINAK 1 ▶ Udal langileek ekaineko astearte guztietan 8:30etatik 10:00etara lan baldintza hobek eskatuz egin dituzten lanuzteei hasiera eman zieten. **EKAINAK 4** ▶ Milaka arrain hilik agertu ziren Lasako araztegiaren parean, Urola ibaian. **EKAINAK 13** ▶ Europako Legebiltzarra osatzeko hauteskundeak izan ziren, eta Azpeitian EAJ izan zen nagusi. %54ko abstentzioa egon zen herrian. **EKAINAK 22** ▶ Mikel Labaka futbolariak Realarekin kontratua luzatu zuen, bi urterako; lehen taldearekin hasiko du hurrengo denboraldia.



ASTEBURU GUZTIETAN ▶ Lurrinezko trenak bidaiak egingo ditu; zapatuetan 12:30 eta 18:00etan, eta igande eta jaiegunetan 12:30ean. **UZTAILAK 20-25** ▶ Lurrin trakzioaren hastapenei buruzko IX. ikastaroa izango da. **UZTAILA OSOAN** ▶ 3 urtetik 16 urte bitarteko haur eta gazte guztientzat Udalak antolatutako udalekuak egingo dira: *Udan txiki*, *udan jolas*, *udan mug*, *udan alai* eta *udabentura*. Ekintzak herrian bertan eta kanpoan izango dira. **UZTAILAK 18** ▶ Umeen euskal festa ospatuko da egun osoan, herriko kaleetan.



SANTIAGO EGUNA.

Uztailaren 25ean ospatuko da Santiago eguna. Egun osoan ekitaldi asko izango dira: ganadu feria, sagardo lehiaketa, txekor jatea, musika... San Inazio aurreko jai ederra izaten da.

UZTAILAK 25 ▶ 12:00etan ▶ Plaza Nagusian ▶ Sagardo lehiaketa ▶ Udalak antolatuta

IZASKUN EGIGUREN ▶ Emakume Batzarreko kidea

“Emakumeez arduratuko den arlo eta teknikari bat eskatzen ditugu”

Emakume Batzarrak mozio bat aurkeztu du udal-
txean, Emakumea arloa sortzea eskatuz, beste-
ak beste. Horretarako, hainbat sinadura aurkeztu di-
tuzte. Martxoan herrian zenbait emakumek jasan zi-
tuzten “erasoen” aurrean, sensibilizazio handia izan
zen. “Baina sensibilizazio hori ezerezean gelditu da
denborarekin, jendea dagoeneko ez da gogoratzen
gertatu zenaz”, dio Izaskun Egiguren, Emakume Ba-
tzarreko kidea. Garai horretan egin zuten I. Emaku-
meen Biltzarra eta hortik sortu zen sinadura bilketar-
en ideia. “Emakumearen Biltzarra herri ekimenetik
sortutakoa da, eta bertan hainbat arlotako emaku-
meok hartzen dugu parte. arazo honetan jendearen
inplikazioa beharrezkoa da”.

Mozioan, Udalean emakumeez soilik arduratuko

den arloa sortzea eskatu dute. “Herriko Udale-
an kontuan hartu behar dute emakumea-
ren egoera eta arloa. Beste zenbait herri-
tan bezala, arlo horretan lan egingo
duen teknikari bat behar da, eta emaku-
me batek erasoan aurrean nora jo jakin
dezan protokolo bat egitea eskatzen
dugu”, esan dio Uztarriari Izaskun Egi-
gurenek. ◀

UZTAILAK 1 ▶ Udalbatzarra.

- ▶ Ohiko udalbatzarra.
- ▶ 20:00etan.
- ▶ Udaletxeko areto nagusian.

...ETORRI



Besterik ▶

UZTAILAK 5-23 ▶ Argazki zaharren erakusketa.

- ▶ 18:00etatik 20:00etara.
- ▶ Antxieta Etxean.
- ▶ Kutxa.

UZTAILAK 17 ▶ Dantza emanaldia.

- ▶ Itsasi dantza taldea.
- ▶ Izarraitz pilotalekuan.
- ▶ 22:30etan.



UZTAILAK 17-18 ▶ Mendi irteera.

- ▶ Europako Pikoetara
mendi irteera
- ▶ Lagun Onak Mendi
Bazkunak antolatuta.



FERNANDO MORILLO ▶ idazlea

“Idazle baino gehiago, ameslari edo bidailari dut neure burua”

▶ Testuak: Gorka Azkune ▶ Argazkiak: Isabel Garabana

Azkenaldian ez da oharkabeen pasatu azpeitiar gazte honen lana. Fernando Morillo idazlea, ustekabeen iritsi omen da literaturaren mundura. Gaztetan Fisika ikasten hasi zen baina ikasketa horiek utzi eta filosofia munduan murgildu zen. 1999 urtean irabazi zuen lehen literatura saria, eta ez zen nolanahikoa izan, Donostia saria irabazi baitzuen. Aurten, berriz, Austin Zubikarai saria irabazi du. Gaur egun Galizia eta Azpeitia bitartean bizi da, Galizian topatu baitu bere txokoa. Galiziatik Azpeitira etorritzen horietako batean tarte bat hartu zuen bere bizitzaz hitz egiteko.

Nola hasi zinen literatuaren munduan?

Egia esan, nahiko ustekabeen izan zen guztia. Fisikako karrera utzi berri nuen eta Filosofia ikasten hasi nintzen. Ordurako bantuen testu txiki batzuk, neuretzat idatziak. Ipuin batzuk lehiaketetara aurkezten hasi nintzen, besterik gabe, eta horrela lehen sariak iritsi ziren. Mundu horretan gustura sentitzen nintzenez, bide horri eutsi nion. Horrela, ipuin baten atzetik beste bat idatzi, sariak irabazi han-hemen, eta konturatzerako elur-bola hura handituz joan zen gaur arte. Ez nuen pentsatzen, ordea, honaino iritsiko nintzenik, nik nire burua fisikari bezala ikusten bainuen txiki-txikitatik.



Eta zer esan zizuten zure ingurukoek?

Hasiera batean behintzat, inor gutxi zekien idazten jarduten nuenik. Lagunen batek edo beste zertxobait bazekien, baina oro har, sariak iritsi arte inor ez zen jaketu egiten ari nintzenaz. Nik idaztea barrenak husteko tresna gisa erabiltzen nuen, eta, beraz, momentu haietan ez nuen ez al-deko ez aurkako iritzi edo aholkurik entzun. Horregatik lehen sariak irabazi nituenean denontzat ere nahiko ustekabeko izan ziren. Nire amak berak lagun bati esan zion, temati, nik ez nuela idazten

eta ez zela posible saririk irabazi izana; pentsatu hortik!

Testuinguru horretan zer esan nahi izan zuretzat Donostia Hiria sariak?

Ezusteko handia, batik bat lehiaketetara aurkezten hasi bezain laster irabazi edo tokatu baitzitzaidan. Orduan nik ez nuen neure burua idazletzat ikusten inondik ere. Egia da betidanik gustatu izan zitzaidala literatura, euskara eta mundu hori, baina nire bizitzan bigarren mailan kokatuta zeuden. Eta horrela, bat-batean sari hura irabazi nuela esan zidatenean, kristorena irudi-

tu zitzaidan. Alde batetik, niretzat poz handia eta aurrera jarraitzeko motibazio ikaragarria suposatu zuen, eta beste alde batetik, neure burua ezagutarazteko aukera ezin hobea, orduantxe hasi baitzen argitaletxeetako jendea nigana gerturatu eta argitalpen eskaintzak egiten. Hortxe hasi zen lehen aipaturiko elur-bola hori benetan hazi eta potoltzen.

Baina, hala ere, zientziaren munduan murgilduta jarraitu zenuen, eta horren erakusgarri CAF-Elhuyar sariketan irabazitako pare bat sari. Zer eragin izan du zientziak zure lanean?

Oso gaztetatik ohartu nintzen inohe batean zientziaz maiteminduta nengoela, eta nahiz eta Fisika ikasketak alde batera utzi nituen, badaukat barnean oraindik ere zientziarekiko lilura hori. Horregatik, behin ere ez dut alde batera utzi. Nire bizitzako zutabetariko bat izan da eta izango da. Munduari nola eutsi, diziplina eta beste hainbat gauza ikasi ditut zientziaren ildotik, eta noski, nire grina handienetako batek bere isla izan behar zuen idazten dudanean. Seguru aski eragin hori nire idatzi guztietan nabaritu da.

Nola definitzen duzu zuk zeure burua idazle moduan?

Lehenik eta behin, neure burua idazle bezala onartzeko denbora asko behar izan dut. Hasieran egunkarietan eta "Fernando Morillo idazlea" eta horrelakoak irakurtzen nituenean nire baitarako hura nola zen posible pentsatzen nuen. Baina denboraren poderioz gauza horietara ere ohitu naiz. Hala ere, ez nuke neure burua idazletzat definituko, akaso bidailari, ameslari, eta gero idazten duen pertsona bat bezala, bere buruko zamak arintzeko.

Baina estilo aldetik, gaitegia... nolako idazlea zara?

Nire zaletasunak betidanik abentura, zientzia eta sentimenduen inguruko korapiloak izan dira, eta, beraz, nire gaiak hortik doaz. Bestalde, irakurtzean testuak ulergarriak izan daitezen asko estimatzen dut. Horregatik, idazterakoan saiatzen naiz ahal den modurik ulergarrienean egiten. Halako sakontasun ilun horiek bilatu beha- ▶▶

GALIZIAN.

Galizian, Pontevedran dago Morillo, duela urtebetetik, eta haren lagun batek egin dizkio argazkiak elkarrizketa honetarako. Argazkian, azpeitiarra Pontevedrako alde zaharrean, Valle-Inclan idazlearen estatuaren ondoan.



» rrean, nahiago dut benetan sako-
nak diren gauzak modu erraz ba-
tean azaltzea, jendeak istorio bat
irakurri ostean "zeinen istorio
ederra zen!" esatea eta ez "ene
bada, a zer korapiloa!". Azken ba-
tean, ezer gutxirako balio du hiz-
kuntza jasoa erabiltzeak inork ez
badu ezertxo ere ulertzen.

**Ildo horretatik, zenbat aldiz
entzun behar izan ote duzu
idazteko modu arinak sinple-
kerira daramala eta?**

Hori betikoa da. Hasiera batean
idazterakoan ere askotan galde-
tzen diogu geure buruari: "Hau
nolatan idatziko duk ba? Ez ote
da oso sinplea?". Baina denbora-
rekin ikasten da idaztea istorio
ederbat ahal den modurik onene-
an eta erakargarrienean konta-
tzea dela. Adibidez, filosofia ingu-
ruko testu bat idatzi behar bada,
hiztegi teknikoak erabili eta landu
behar da, baina eleberri bat idaz-
terakoan, garrantzitsuena isto-
rioa bera da, eta zer esanik ez,
hizkuntzaren zuzentasuna ere
bai. Alde handia dago sinpletasu-
na eta sinplekeriaren artean. Isto-
rio bat kontatzean, sinpletasune-
tik abiatuta, ahal den ondoen
kontatu behar da. Sinplekerian
erortzea oso bestelako gauza da.
**Urte gutxi daramatzazun
arren, oso lan zabala egin
duzu. Literaturako esparru
gehienak landu dituzu, hala-
nola biografiak, poesia, gazte
literatua, zientzia eta azken**

**liburu honetan thriller-aren
generoa. Nolatan lortu duzu
hainbeste adar ukitzea?**

Hainbeste gauza gustatzen zaiz-
kit! Badaude gai zehatz batzue-
tan espezializatzen direnak, baina
nik mundu honetan non ikasi
gehiagi ikusten dut eta ezin naiz
esparru batera mugatu. Horrega-
tik, beti saiatzen naiz gaiz alda-
tzen, gauza berriak ikusi eta ikas-
ten.

**Kontuan izan behar da, ordea,
gauza horiek guztiak zeure
kontura ikasi dituzula.**

Bai. Eskolan-eta aspertu egiten
nintzen, ez ez zitzaidalako ikastea
gustatzen, oso erritmo ezegon-
korrekoa naizelako baizik. Aste
batean lan pilo bat egin dezaket
baina hurrengoan agian, neure
kontura ibiltzen naiz bestelako
gauzak egiten, eta erritmo hori
eskola edo unibertsitateetan era-
manezina da. Horregatik nahiago
dut neure kasaka ikastea, neure
erritmoan.

**Nondik ateratzen dituzu zure
istorioak? Zein dira zure inspi-
razio iturriak?**


Inspirazioa hor dabil, hegan. Adi-
bidez, parrandak oso oparoak
dira, askotan lagunek apaiz bat
banintz bezala beraien istorio txi-
kiak kontatzen dizkidatelako -ai-
tortza sekretuagatik diot, noski-.
Bestelakoan, betikoa, norberaren
bizitza, ametsak... baina oro har,
kalean bertan topatzen ditut gau-
zarik zelebreenak. Kontua da

Datua ▶

12

LIBURU.

**30 urte besterik ez dituen
arren, 12 lan argitaratu ditu
Fernando Morillok. 1999an
ikusi zuen haren lehen lanak
argia eta ordutik argialetxeak
atzetik izan ditu.**



Saria ▶

2003

EUSKADI SARIA.

Hainbat sari irabazi ditu, eta
garrantzitsuena, Euskadi
Saria, haur eta gazte
literaturakoa, 2003an.

erne egon behar dela, beti ere ra-
darra martxan.

**Beraz, errealitatean gertatuta-
ko istorio asko topa daitezke
zure liburuetan.**

Bai, jakina. Uste dut azken bate-
an, istorio bat errealitatetik gertu
dagoenean, sinesgarritasun han-
dia irabazten duela, eta jendeak
oso hurbil sentitzen duela.

**Aurreko urtean Galiziar alde
egin zenuen. Zer bilatzen ze-
nuen han?**

Galiziar aurreko udan joatea
erabaki nuen. Motxila hartu eta
Pontevedra aldera abiatu nintzen
eta bertako alde zaharra ikaraga-
rri gustatu zitzaidan. Munduan
ibiltzeko gogo handiz nenbilenez,
aukera ezin hobea iruditu zitza-
dan. Neure buruarekin bakarrik
egoteko, pixka bat isolatzeko be-
harra nuen, inork ezagutzen ez
ninduen toki batera joateko grina
neukan. Hala ere, zorioneko sari
batzuk medio, bueltaka ibili behar
izan dut, eta isolamendu hori ez
da nik uste bezain handia izan.

**Eta nola egiten duzu lan?
Noiz?...**

Hemen Galizian edo han Azpei-
tian nire lana beti bera da. Idazle
baten errutina da nirea ere: libu-
rute gira joan eta informazioa
lortu, hitzaldiak prestatu, jende
abaniko zabalean erreparatu...

**Euskaraz idazten duzu. Euskal
merkatua hain txikia izanda,
idazteak ematen al du bizitze-
ko lain?**

orain Santiago kalean

Gemma
kinkiladenda
943 15 18 65

ANTZIBAR
CONSTRUCCIONES
ERAIKUNTZAK

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Egia esan, liburuak idaztetik bizi-rautea ia ezinezkoa da, balizko irakurleak oso gutxi baitira, baina idazleok, zorionez, bestelako bide batzuk ere jorra ditzakegu: hitzaldiak, itzulpenak eta horrelakoak.

Literatura alde batera utzita, zer ardura dituzu bizitzan?

Ba bizitzea! Motxila hartu eta hor ibili, jendea ezagutu, lagun be-

Galizia, bi kolpetan

Jendea. "Oro har, Galiziako jendeak asko estimatzen ditu euskaldunak, asko baloratzen dute euskaldunok daukagun eta dagoeneko beraiek galdua duten izaera markatu hori".

Hizkuntza. "Gailegoz dagoeneko oso jende gutxi hitz egiten du eta hemengo hizkuntza gaur egun oso egoera larrian dago. Askok harritu ninduen bertako idazleen artean ere gaztelaraz hitz egiteak. Badirudi ez direla ohartzen ia galdua dutela bertako hizkuntza. Kultura munduan ibiltzen diren direnek erabiltzen dute normalean gailegoa. Nik ulertzen ikasi dut, baina hitz egiten oraindik behintzat ez dut ikasi".



rriak egin, ikasi...; bizi, hitz batean. Nik uste azken batean, betidanik bilatu izan dudana hori izan dela. Fisika ikasten hasi banintzen, batez ere bizitza nolakoa den jakin nahi nuelako zen. Pixkanaka ohartzen joan nintzen, ordea, misterio horiek ez daudela zientzian soilik, halako abaniko zabal batean baizik. Horregatik jarraitu nahi dut idazten, nire lana baita eta askatasun handia ematen baitit bizitzak benetan planteatzen dituen enigma horietan behar bezala sakontzeko.

Aurten, Euskadi Saria irabazi duzu gazte literatura mailan, oso sari potoloa. Nola hartu zenuen? Zer suposatu du zure lanean?

Ekonomikoki salbazio bat bezala hartu nuen! Egia esan, motibazio handia suposatu zuen niretzat, eta bidea zabaltzeko modu bikaina. Askotan idazleoi bigarren mailan egotea gustatzen zaigu, baina ezagunak ez bagara, ez dugu batere saltzen, eta zentzu horretan Euskadi Saria egundoko bultzada izan da. Bestalde, finalisten artean nengoela esan zidatenean, hori bera gauza handia iruditu zitzaidan, beste idazleak zein ziren eta sarien palmaresa kontuan hartuta. Horregatik, saria niri eman zidatenean, pentsa dezakezu, ezin sinetsita ibili nintzen.

Bukatzeko, eta etorkizunari begira, zer proiektutan zaude murgilduta?

Lan asko dut. Ni beti gauza batean ibili beharrean, hamaika liburu idazten eta beste hainbeste buruan ditudala ibiltzen bainaiz. Orainxe momentuan, gazte literaturan bizpahiru liburu prestatzen ari naiz, intriga edo halako eleberri poliziako bat ere badut buruan, itzulpen interesgarriren bat, unibertsitaterako ikastaro bat prestatzen ere ari naiz...; denetik, handik edo hemendik. Aukera guztiak aprobetxatu nahian nabil, idazleonez bizitza oso ezegonkorra baita, eta ate guztiak irekita mantentzea komeni zaigu. ◀

“Parrandak oso oparoak dira; lagunek apaiza banintz bezala euren istorioak kontatzen dizkirate”

“Idazleoi bigarren mailan egotea gustatzen zaigu, baina ezagunak ez bagara, ez dugu batere saltzen”

“Aukera guztiak aprobetxatu nahian nabil, idazleonez bizitza oso ezegonkorra baita”



20 legoatako POESIA

Badira bi urte hiru azpeitiar elkartu eta poesia emanaldiak eskaintzen hasi zirela; 20 eman dituzte

► Testuak eta argazkiak: Idoia Mendizabal

20 emanaldi ematera iritsi dira Igor Aranbarri, Aitor Bengoetxea *Ondarru* eta Kepa Urbietza azpeitiarrak *Diapoesia: Ikusteko poemak eta entzuteko irudiak* ikuskizunarekin.

2002ko martxoan eman zuten lehen aldiz, Azpeitian, Orkatzen, I. Kulturaldian. Ordutik Euskal Herriko zenbait herri eta hirietatik pasatu dira. Bidean utzi dituzte Getaria, Bilbo, Gasteiz, Larrabetzu... "Aukera asko izan dugula iruditzen zaigu, kontuan izanik gu ez garela ez idazle, ez ezagun".

Lehen emanaldi hartatik, ordea, *Diapoesia* aldatuz joan da. "Emanaldiak egin ahala hobetu daitezkeen zatiak aldatu edo soberan daudenak kendu ditugu. Bestalde, argazkiak eta poesiak tarteka aldatu egin ditugu, gu ere noizbehinka arnasberritzeko".

Gustura ibili dira orain artean, eta atzera begira barre egiten dute, egin dutenaren zergatia ez dakitelako. "Egun batetik besterako kontua izan zen guztia. Zerbait egin behar genuela bururatu zitzaigun eta horretan jarri ginen, zer izango zen jakin gabe. Agian, ederrena zera izan da: guztia inozentzipean egin dugula", dio hiru-

koteak. Egindakoaz gustura dira, inoiz kritika txarrik jaso ez dutelako eta gehienetan iritzi ederrak jaso dituztelako. "Ikus-entzuleen artean jasotako iritziak onak izan dira ia denak, eta guk pozik hartzen ditugu horrelakoak. Baina hori normala ere bada, oso zaila baita gustatu ez eta guregana etortzea adieraztera. Etorri eta esan izan digute zer aldatuko luketen edo zer sentitu duten faltan baina beti modu onean eta gustatu zaiela esanda".

Emanaldiak

Herriak.


- Azpeitia (bi emanaldi).
- Azkoitia.
- Deba.
- Getaria.
- Zestoa.
- Lazkao (bi).
- Gasteiz (bi).
- Bilbo (bi).
- Larrabetzu.
- Lemoa.
- Elorrio.
- Oiartzun.
- Erreterria-Orereta.
- Eskoriatza.
- Arrasate.
- Zarautz.



Goi-goian Kepa Urbietza, erdian Aitor Bengoetxea eta bestean Igor Aranbarri.

► **SENTSAZIOAK.** "Emanaldi bakoitzak izaera berezia izaten du, inoiz ez gara sentazio bera-ekin geratu. Lekuak asko baldintzatzen du, giroa sortzeko ezinbestekoa baita, eta denetik eza-gutu dugu. Liburutegietan, tabernetan, barnetegietan egin izan ditugu, eta kalean ere bai", esaten dute zer sentitu duten azaltzera-

koan. Aurrerantzean ez dakite zer egingo duten, baina bukaera gertu dutela diote. "Gero gerokoa, ez dakigu mundu honetan jarraituko dugun. Bakoitzak bere aldetik egingo du lan eta norberak ikusiko du zer nahi duen egin. Hala ere, baliteke hurrengo batean ere hirurok zerbait egitea. Denborak esango du". ◀



NUARBEO PIXATOKIA.

1936ko Gerra garaian ireki zuten Nuarben eliza aurrean dagoen pixatokia. 60. hamarkadan, inguruko bizilagunak kexa omen ziren honek sortzen zuen usain txarragatik eta zaintzarik ez zuelako, eta itxi egin zuten. Hogeitabat urtean egon zen itxita, baina inguruko senar-emazte batzuen eskaera kontuan hartu eta orain hamar urte inguru ireki zuten berriro. Irekitzean, aska eta iturri berria jarri zituzten.

► Testua: Ihintza Agirretxe ► Argazkia: Nerea Uranga

Efemerideak ▶ uztaila



Izarraizko elurzuloa.

herrian, denerako NEURRIAK

Denetatik gertatzen zen herrian: haurrak agertzen ziren, kontrabandoa ere hor zen...

▶ Testuak: 'Azpeitiko efemerideak' liburua (Imanol Elias-Uztarria)

1740-UZTAILAK 1 ▶

Utzitako haurrak. 1740. urtean, aurreko egunean aurkitutako utzitako bi haur Iruñeko Ospitale Nagusira eramatea erabaki zen, han hazkuntza hobea izango zutelako. Herriaren gutun bat eramen zuten bideko gastuak ordaintzeko.

1981-UZTAILAK 2 ▶

Industrialdea. 1981. urtean, Azkoitiaren eta Azpeitiaren artean Basarte industrialdea sortzeko, plan partzialeko poligono aldaketa onartu zen.

1881-UZTAILAK 4 ▶

Kontrabandoa. 1881. urtean, kontrabandoa zaintzeko Joxe Mari Larrañaga eta Joxe Ramon Arozena izendatu ziren. Bakoitzari egunean sei errealdaintzea erabaki zen. Udaltzainei ere libre zituzten orduetan lan bera egitea eskatu zitzaion, eta egunean bi errealdaintzea eskatu zen.

1688-UZTAILAK 11 ▶

Izoztegia. Izarraitzen zen izoztegia eta inguruko etxe txikian egin



Basarteko industrialdea. UZTARRIA

behar ziren konponketa lanak aurrera eramatea erabaki zen. Lehenik izoztegiak behar zuen errete- na egingo zen eta ondoren beste guztia.

1941-UZTAILAK 21 ▶

Monumentua. 1941eko uztailaren 31n, San Inazio egunez, gerratean hildako erreketeen monumentua inauguratzea onartu zen. Parrokian izango zen meza nagusiaren ondoren inauguratuko zen monumentua, eta gonbitea bidaltzea erabaki zen probintziko agintari eta Tertzioko buruari. ◀

Pertsonaia ▶

KINTTELA.

1999ko uztailaren 24an debutatu zuen Igor Etxaniz *Kinttela* burtzikariak. Hain zuzen, Azpeitiko zezen-plazan aritu zen lehen aldiz. Aurten bost urte beteko dira, beraz, Kinttelak herrian debuta egin zuenetik.

Datua ▶

1974

URREZKO DOMINAK.

Aurten 30 urte beteko dira herriak bi urrezko domina eman zituenetik. 1974ko San Inazio egunez, uztailak 31n, Inazio Perez Arregiri herriak urrezko domina eman zion. Julian Elorza zenari ere eman zion herriak urrezko domina.

Argazkia ▶



TTUNTURROAK.

1979. urteko uztailaren 29an Itsasi dantza taldeko ttuntturroek lehen aldiz desfilatu zuten herrian. 25 urte beteko dira, beraz, aurten, herriko kaleetan aurreneko aldiz ttuntturroak euren kanpakiak dantzatzen ikusi ahal izan zirenetik.

Kontua da... ▶

Bada aldaketa parrokian

Azpeitiko parrokian XVIII. mendean, datu hauek jaso ziren 1774. urtean Apezpikutzak eginiko txosten batean. 2.800 biztanlek egin zuten aitortza eta jaunartzea, eta 452 haurrak ziren. Hamalau urte geroago datuak erabat aldatu ziren, lehen datua 4.706ra iritsiz; 1.500 Urrestillako parrokoak izanik.

Soreasuko parrokian, 121 haur bataiatu ziren 1764tik 1774ra bitartean, eta 25 ezkontza urteko.

Parrokiko batzarra erretoreak eta beste zazpi apaizek, bi kaperauk, sakristauak eta organistak osatzen zuten, eta beste zazpi kaperauren laguntza zuten jai handietan. Lau behintzat, Nikolas Saez de Elolak sortutako kaperau lanean ziren eta derrigorrezkoa zuten herrian biziitzea; beste hirurek ez.

Erretoretzarako lehentasuna zuten Canones teologian edo legeetan lizentziatuak edo doktoreek, eta bera parroko patroiak izendatzen zuen. Zazpi apaiz

eta bi kaperau. Erretoreak bere ordezkaria eta sakristaua, eta azkenik batzarrak izendatuz organista.

Parrokian eta Urrestillakoan eskura zitezkeen fruituen erdiak, patroiak jasotzen zituela, beste erdiak geldituz batzarrarentzat.

Juan Fermin Gilisasti komisiadunak adierazi zuen hiru monasteriotan 20 konfessore zirela eta parrokiaren beharrei erantzuteko nahikoak zirela. Guztira 18 lagun herritarren zerbitzura!

Urteak igaro dira eta bai gauzak aldatu ere, nahiz eta biztanleriak gora egin. Mundua bera aldatu da nonbait, eta berarekin batera guztion pentsaera eta bizitza. Garai batean, sendiarentzat harrotasuna zen seme bat apaiz izatea; orain harrigarria da, ulertu ezi-nezkoa. Gu baino adituagoak ahaleginduko dira gertatzen denaren berri aztertzen, errua non dagoen aurkitzen, egin den bide luzea hausnartzen...



Imanol Elias
Odriozola

Garai bateko Azpeitia ▶ Joxe Azkoitiak kontatua

erromerietako KONTUAK

Erromerietan ibiltzea zuen gogoko Joxe Azkoitiak batetik, baserri lanak uzteko eta bestetik, neska laguntzak egiteko

▶ Testua: Kepa Urbieta

Joxe Azkoitia Sanjuandegi auzoko Aitonenan zegoen eserita merienda egiteko prest; txorizo ogitarteko bat eta sagardo botilla bat alboan zituela. Derrepente hasi zen garai bateko pasarteak harrotzen.

Garaiak asko aldatu direla dio Joxe Azkoitiak. "Ni gaztetan beti baserrian egoten nintzen, beti zoruko lanak egiten, itulan ganaduaren aurretik. Eskolara ez joateagatik alferra jaio ginen eta". Eskola galdu nahi izan arren, lan asko egiten zutela gogoratzen du. "Gure gazte denboran lan kontua gehiago izaten zen denbora libre baina. Aita pertsona txarra

genuen: beti lanera eramaten ginduen; goizean seirak aldera esnatu eta gaueko hamaikak eta erdiak aldera arte beti zegoen zerbait egiteko".

Baina dena ez zen lana izan, Azkoitiak aitortzen duenez. "Ezer-gatik" aldatuko ez lukeen gazte garaian erromerietan ibiltzea zuen gogoko: "Gu amorratzen

Amorratzen egoten ginen erromeria egon zedin etxetik alde egiteko; bestela, aita lana agintzen zigun eta"

JOXE AZKOITIA ▶ erretiratu



Gizonak erromeria batean. IEA

egoten ginen erromeria egon zedin, etxetik alde egiteko; bestela, aita lana agintzen zigun eta. Ondo pasatzen genuen baina hori bai, gu tonto hutsak ginen! Hemen inguruko erromerietara joaten ginen: Urrategi, Aratz erreka, Urrestilla, Martitera... eta gure inguruko neskek ez zuten gurekin nahi izaten, kanpoko jendea nahi izaten zuten. Batzuk neska laguntzan joaten ziren, pozik ibiltzen ginen, eta norbaitek eskutik helduz gero, oso gustura".

Gogoratzen duenez, behin Martiten erromerietara joana zirenean, elurra egin zien. "Gizon batek motor lambreta bat zuen eta neska atzean zeraman. Gu ez kutuan geunden eta elur tiraka hasi ginen. Nik neskari hankan jo nion. Geroxeago, mutila etorri zitzaigun eta zera esan zigun: 'Nik baneki zein den eta harrapatuko banu elur tiraka jardun zaigun hura, bertan hilko nuke'. Segituan joan nintzen etxera; hark harrapatu banindu...". Gaiztakeria egin bai, baina oraindik ez du konfesatu. "Hori ez da bekatu", dio. ◀



Hitz geizidunak ▶

	Afrikako estatua	Kutxa	Alabaren neba	Handiak	Ukrainako hiriburua
	Aldakuntzak	Donostiako	Suari dario	Ipar., taxu, molde	
	* IZENA				
	Azala				
* DEITURA	Siberiako ibaia		Irlanda		
Ez ohiko	Kontso. bikoitza		Sindikatu abertzalea		
			50	54	
			Kontso-nantea	Oholtza	
Irrist egina					7 egun
Musika nota					
	Norat atzikia		Baldintzetan	Errep., gorotza	
	Gipuzkoa-ko herria		Aita	Röntgen	
Nauka		Kasik	H ₂ O		Sufrea
Gipuzkoa-ko herria		Ezinaren erdian	Euskal alderdia		Aluminioa
				Kanpo, landa	
				Kontso-nantea	
Joan aditzaren erroa		Garaile			

* Kazetari eta irrati esataria

Pasarte kodetua ▶



Fernando Morillo idazle azpeitiarraren pasarte bat (*Gudaroste ametsak*) azalduko zaizu ondoko lauki guztiak bete ondoan. Joko honetan, zenbakiak hartu dute letra edo hizkien ordea. Letra bat, zeinek berea, hartzen du gehienez zenbaki bakoitzak, eta batzuetan ez dira letra guztiak azaltzen. Zenbaki batzuei dagozkien letrak ematen ditu lagungarri gisa.

U								A	Z
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
E		N						B	
11	12	13	14	15	16	17	18	19	20

20	1	10	11		9	1	10		18	6	13	12
11		8	1	4	1	10		4	16	6	5	13
8	7	1	10		5	11	3	1	11	10		5
1	20	1	6	1	10		11	6	6	1	3	11
	4	11	10	20	13	11	18	15	9		13	4
11	6	20	16	10	1	9		18	1	6	15	
15	6	20	1	11		5	13	9	13	18	11	6
6	13	3	11	12	16	10		11	6	6	11	10
3	9	11	14		1	10	3	9	16	10		9
13	3	1	9	14	1	1	10					

Soluzioak ▶**HITZ GEZIDUNAK**

E	L	Z	A	B	A	R	I	•	A	O	•
T	A	•	L	A	B	A	Z	A	I	D	I
S	•	R	U	•	A	I	•	U	A	N	J
A	K	•	A	B	•	T	A	R	•	O	D
•	A	U	A	T	A	T	S	I	R	I	•
V	L	•	L	•	O	R	A	R	A	R	A
E	R	E	•	A	N	E	N	•	I	•	•
I	A	R	A	M	E	X	O	J	•	•	•
K	A	T	A	K	E	A	L	D	A	K	•
•	L	•	S	•	K	•	A	•	•	•	•

PASARTE KODETUA

sun arrantzak entzun zitezkeen". **Fernando Morillo**
 Arreta handia gero, ordea, bizigarria-
 "Dena zen gris, lehen hurbilpen batean bederen."

7er eraikin da hau? ▶**UZTARRIAREN MAIATZEKO ARGAZKI LEHIAKETA****zer kale da hau?****Jose Artetxe****irabazlea**

Irune Gurrutxaga Uztarriako bazkidea izan da argazki lehiaketako
 52. irabazlea. **Mugi dendako** erosketa txartela irabazi du sari gisa.
 Argazkian, Irune—eskubian— eta Mugi kirol dendakoa.

ERANTZUTEKO EPEA ▶

Uztailak 12 (astelehena)

NORA BIDALI ▶

Julian Elorza Hiribidea 4, behea

ZERTOKI DENADIERAZI ▶**ZURE IZENA / TELEFONOA ▶****IRABAZLEARI SARIA ▶**

Erosketa txartela (Oinkari)

PARTE HARTZEKO**BALDINTZA ▶**

Uztarrin bazkide izan behar da

Amenabar
 DENDA


gortinak, ohazalak,
 edredoi nordikoak ...

Eliz-kale, 32-behea - Telf/Fax: 943 15 06 97



Arana, 5
 AZPEITIA

ERLOJU
 KONPONKETAK
 Tel.: 943 81 47 12



AIZPURU
 AUTOAK

PEUGEOT

Landeta Auzoa - Urrut.: 943 81 23 59
 Faxe: 943 81 22 81 - 20730 AZPEITIA



Olamendi
 Batai Denda

Goiko - Kale, 4 - Tfnoa. 81 13 49



Lore Sortak
 Koroak
 Lore Apaingarriak

Etxeetarako
 zerbitzua dugu



Tel. 943 81 51 87
 Loiolabide, 25

KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"

URBISTONDO
MARGOAK

Salbe Auzunea, 35 behea

20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

Zaindu ▶ Gurbiza

Julian
Bereziartua



Madrilgo armariarekin erla-
zionatu da, baina gurean
ere bada landare gurbiza; batez
ere, Nafarroaren erdialdean.

Zuhaizka bat da eta Arteak
ikusten diren tokietan hazten da.
Itsasotik gertu, muinoetan eta ba-
rrualdean, Nafarroa erdialdean.

Ondo hazten da lorategietan
eta baratzetan; loretan dagoene-
an, bere edertasunak liluratzeko
gaitu eta are gehiago udazken
negu aldean, aleak heltzen dire-
nean. Fruitua biribila, azal zimur-
rrekoa, gorrixka eta intxaur alea-
ren antzeko tamainukoa da.

Azalak eta ostoeak arbutina sus-
tantzia dute, eta infusioa ondo
prestaturik gernu-infekzio arineta-
rako gomendagarriak dira.

Gurbiza eta ahabia famili bere-
koak dira; pagadi eta hariztietan
aurkitzen dira. Gurbitzaren fruitua
mermelada gisa jateko hobe da.

Pasadizo bat kontatuko dizuet.
Ehiztari talde bat harrituta gelditu
zen, azeriak balantzaka ikusi zi-
tuztenean ihesi zihoazela. Moz-
kortuta zeuden gurbitzaren frui-
tuak jan zituztelako. Heltzen dire-
nean izaten duten azukreak irakin
egiten du eta alkohol bihurtzen
da, ale barruan bertan eta ne-
guan jaten bada lehen aipaturiko
ondorio horiek izaten dira. Alko-
hol hori, desagertu eta lurrindu
egiten da sukaldeko prestakete-
tan berotzen denean; beraz, per-
tsonentzat ez du arriskurik.

XABIER BIDEZABAL ▶ dantzaria

Dantza bat?

Agurra.

Dantzari bat?

Jon Maia.

Agarraua edo sueltao?

Sueltao.

Bakarrrik edo bikotean?

Bikotean.

Eta bikotekide?

Beñat Unanue.

Plaza bat?

Sidmouth (Ingalaterra).

Agurra nori?

Gurasoei.

Dantza estilo bat?

Tangoa; pendiente dudak
dantza da.

Dantza talde bat?

Elai-alai, Portugaleteko
dantza taldea.

Egin edo erakutsi?

Beti hobe ikastea.

Egin edo ikusi?

Egin.

Dantza emanaldi bat?

Operan, Dimitri Nureiev
errusiarrek aidean hiru
buelta eman zituenekoa.



▶ Testua eta azgaskia: Iñintza Agirretxe

Abizena ▶ Odriozola

Armarria.

Azpeitiko etxeko armarria: lau
zatitan banatua dago. 1. eta 4.
zatiak zilarrezkoak dira. Bertan
garangorri berdeak ageri dira
fruitu gorriekin. Beste bi zatie-
tan fondo berdean zilarrezko
dorre bat ageri da.

Banaketa semantikoa.

▶ Odria-tik eratorria. Odria +
zola.

Esanahia.

Odriako esan nahi du. Oriozola-
ren aldaera bat dela esaten
dute.

Abizenaren kokapena.

▶ Azpeitian Odria auzoan.
▶ Beasaingo Astigarreta au-
zoan.

▶ Mutrikun.

▶ 1771. urtean Urrestillatik Se-
govia (Espainia) pasatu zen.

Abizenaren hedapena.

▶ Azpeitia (1664, 1669,
1683, 1693, 1770, 1776).

▶ Eibar (1730).

▶ Mutriku (1567, 1568).

▶ Zestoa (1780).

▶ Zaldibia (1773).

▶ Aramaio (1658).

▶ Bilbo (1848).

Esandakoa ▶

“ Batzuetan
pentsatzen dut eman
dezakeguna baino
gehiago eskatzen
dugula ”

ESTHER LARRAÑAGA ▶

Politika Sozialeko diputatua

“ Bat ez da jabetzen
autodeterminazio
pertsonalaren
garrantziaz falta
zaion arte ”

XABIER MADINA ▶

informatikoa

Zenbat ▶

4

GORPUZKIN.

Ekainaren 16an, 1936ko Gerran
eraildako 4 azpeitiarren gorpuak
aurkitu zituzten Elgetan.

Oraindik ez dakite nortzuk diren.

K
HORMIGONES
LAZKANO
HORMIGONIAK



kutxa
gizarte ekintza

Gertuko pasadizoa ▶

lehenengo PLAZAK

‘Joxe Lizaso. Nere aldiko kronika’
liburutik hartua ▶ Argitaratzailea:
Sendoa ▶ 2001 ▶ Egilea: Joxe Mari Iriondo

Joxe Lizaso
Nere aldiko kronika
Joxe Mari Iriondo



Joxe Lizaso —ezkerrean—, Lasarerekin bertsotan.

LEHENENGO PLAZAK (114. orria) ▶

Mila buelta eman nizkion urrengo egunari, oeanjira eta buelta, eta beti gauza bera zetorkidan burura: nik zer egingo nuen Zepai bezelako bertsolari baten parean? An etzan izango Etumetako konturik! Dana beltz eta ilun ikusten nuen...

Ala behintzat, gau ikaragarri ura ere pasatu zan, ba; eta goizaldea etorri zanean, ez neukan nik Zepaik jeupada egin bear andirik esnatzeko. Preparatu eta atarian zai nengoen ura etorri zanerako.

Nere aldean lasai zetorren Akilino, egunpasa egiteko prest. Dana dala, alkarri berriketa andirik esan gabe tapa-tapa, Azpeitiko esta-

ziora jaitsi ginan, beti bezela oinez. An Urolako trena artu genuen, eta Donostiara; gero, Topoa artu eta Irunera. Eta andik gora Gaintxurizketara, berriro ere oinez. Etzegen oraingo konturik joan etorriak egiteko. Oraingo erosotasun au izan bagenu, ezta zartu ere gu...

Bertsotan asteko ordua etorri eta, bera asi zedilla eskatu nion Akilini, jendearen aurrean ohituta zegoen, eta ark asitako bideari segituko niola nik. Jende asko zan bertso saioan, eta bereala oartu nintzen gazteari txalo geiago jotzen ziotela, ez bertsolari ohea nintzalako, aulenari laguntzeko oitura ori zarra dalako baik. Saio artan ori gertatzen ari ote zan nengoen ni behintzat.

Zepaik jarritako bideari jarraituz, erantzunak uste baiño errezago moldatzen nituen nere lehenengo saio artan, eta ori pentsatuz neure burua poztu nuen. Ezintasun artan zerbait nai nuelako izango zan, noski. Bestalde, Zepaik errima eta esaldi berdintsuak bein eta berriz errepikatzen zituela ere oartu nintzan, goizean esandakoak arratsaldean berriro esanez.

Egun ura orrelaxe pasatu zan. Eta gero, atzera buelta: Irungo estaziora jaitsi, Topoan Donostira, eta Urola trenean, Azpeitira. Neka-tuuta etorri nintzan, baiña bueltakoan berrikerako gogo eta gaita geiago ekarri nuen goizean aruntza joan giñanean baiño. Eguneke soldatxoa ere jasota nentorren-eta. ◀

ATC TORREALDAY
aholkulari kontseilariak

Iberotarren plaza, 7 behea
Tfnoa: 943 15 05 09
Faxa: 943 15 16 74
azpeitia@atctorrealdy.com

Euskal Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 16 40

Ekain Larrialdiak:
943 15 16 40

ALBAITARI KLINIKA

PILDAIN
inmobiliaria

Elizkale, 22 • Tf: 943-812167 • pildain@jct.es

ERAKUSKETA:
Eliz kalea, 12 - behea
Tfnoa eta faxa: 943 81 12 12
BILTEGIA:
Landeta Hiribidea, 19
Tfnoa: 943 15 16 66
20730 AZPEITIA
E-mail: iturralde@euskalnet.net

Bainuak eta bainu osagarriak

ESKaintzen duguna

Iturgintza
Berogailua, klimatizazioa, EUB eta beraien mantenu lanak
Gasa (EG-IV kategoria)
Erregai likidoak

ITURRALDE Iturgintza, S.L.

Irudiekin, Iraurgi bailaren zerbitzura

KAITO TELEBISTA

Grabatutako bideoen kopiak egiten dira

81 53 35

ostadar optika
OPTOKIAK - OPTOMETRISTAK

Jose de Arretxe, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA

Ibai Ondo, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA

Biele

domusa

Telefono zenbakiak ▶

TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Lantzen	85 11 00
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Zapo Txoko / GIB	15 71 61
INEM	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
Igerilekua	81 41 21
Ertzaintza-Azkoitia	08 37 80
Aitonena I	81 51 71
Aitonena II	81 23 89
Epaitegia	02 51 91
Ingurumen Etxea	81 24 48

OSASUNA

Anbulategia	81 51 00
Anbul.-larrialdiak	81 12 01
Asepeyo	81 44 00
Gurutze Gorria	85 32 97
DYA-Donostia	46 46 22

KOMUNIKABIDEAK

Uztarria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Hitza (Zarautz)	89 00 17
Azpeitian Zer?	81 11 00
Berria	943 30 40 30
Gara (Herriak)	943 31 69 99
Deia (berriemailea)	943 72 57 75
DV (berriemailea)	943 15 09 94
Argia	943 37 15 45

LARRIALDIAK

112

Nabarra	948 22 71 25
Arrate Irratia (berriemai.)	81 26 32
Loiola Herri Irratia	81 44 58
Euskadi Irratia	943 01 23 00
Kaito Telebista	81 53 35
Izarraitz Telebista	85 13 05
ETB	943 01 17 05

ALDERDI POLITIKOAK

EAJ	81 55 70
Habea	15 72 00 (138)

EA	81 00 11	Antxieta Etxea	81 35 40
PSE-EE	15 72 00	Kontseilua	943 59 12 00
PP	15 72 00		

IKASTETXEAK

Iraurgi	81 02 10
Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	81 63 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28

SINDIKATUAK

ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

KULTURA-EUSKARA

Euskara Patronatoa	81 45 18
Udal Euskaltegia	81 19 47
AEK	15 10 89
EHE	15 10 89
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	81 65 08
Uztarria Kultur Koor.	15 03 58

BESTERIK

UGLE (Urolakogay-lesbia.)	273 posta
Xoxoteko aterpea	58 10 07
Hitzeko Euskara-Komunikazio Zerbitzuak	665 72 39 79

Farmaziak gauez ▶ uztaila

5-10-11-22

Aranburu (Azpeitia).	943 81 13 50
----------------------	--------------

7-19-24-25

Etxebeste (Azpeitia).	943 81 19 49
-----------------------	--------------

8-20

Garzia (Azpeitia).	943 81 12 74
--------------------	--------------

9-21

Zulaika (Azpeitia).	943 15 03 34
---------------------	--------------

3-4-12-13-28-29

Gisasolo (Azkoitia).	943 02 65 15
----------------------	--------------

14-15-16-17-18-26

Ruiz (Azkoitia).	943 85 19 66
------------------	--------------

1-2-31

Jaen (Azkoitia).	943 85 06 60
------------------	--------------



AITONENA GOIKO ILEAPAINDEGIA.

Mari Jose Iturria da Aitonena I-eko bigarren pisuko ileapaindegiko arduraduna. Jubilatuentzat eskaintza bereziak egiten ditu. Asteartetik ostiralera goizez 9:00-12:00ak bitartean egoten da zabalik eta arratsalde 15:00-19:00ak artean. Zapatuetan goizez.

Garraioa ▶

ALDALUR

85 27 18

EUSKO TREN

15 06 77

GUIPUZCOANA

85 11 59

PESA

21 26 99

PIPER ELK.

85 25 87

TAXIAK

81 13 07

Ateak zabalik ▶

UDALETXEA

▶ Asteguna:	09:00-13:30
▶ Larunbata:	09:00-13:00

UDALTZAINGOA

▶ Egun osoz irekita egoten da

ANBULATEGIA

▶ Egun osoz irekita egoten da

IGERILEKUA

▶ Astelehena:	14:00-21:00
▶ Beste astegunak:	07:00-21:00
▶ Larunbata:	10:00-13:00, 16:00-20:00
▶ Kanpokoak:	11:00-20:00 (udan egunerok)

KIROLDEGIA

▶ Astelehena:	09:00-13:00, 15:00-21:00
▶ Beste astegunak:	15:00-21:00
▶ Larunbata:	10:00-13:00, 16:00-20:00

UDAL LIBURUTEGIA

▶ Astegunak:	10:00-13:00, 16:00-20:00
▶ Udan (abuztuan itxita) eta Gabonetan:	astegunetan: 09:00-13:00


ZAPO TXOKO

▶ Asteartea-ostirala:	17:00-20:30
▶ Larunbata:	16:00-20:30

hitzeko

euskara eta komunikazioa

- ▶ **Itzulpenak.** Hainbat hizkuntzetatik euskarara itzulpenak egiten ditugu. Eta alderantziz.
- ▶ **Zuzenketak.** Euskarazko testuen zuzenketa.
- ▶ **Bai Euskarari Ziurtagiria** dutenen jarraipena eta beharrak betetzen ditugu.
- ▶ **Mikroplanak.** Euskararen normalizazio planen diseinua.
- ▶ **Komunikazio zerbitzua eta produktuak.**
 - ▶ Aldizkariak, liburuak, iragarkiak, kartelak, triptikoak, menuak, errotuloak...
 - ▶ Agendak, eskola agendak, liburu ofizialak (akta liburua, bazkideen erregistroa...), inprimakiak (erreziboak, fakturak...), errotuloak, artxibadorak eta koadernoak, egutegiak, postalak, mapak...



BEZEROAK:

- ▶ Uztarrria Kultur Koordiandora
- ▶ Zestoako Udala
- ▶ Azkoitiko Udala
- ▶ ...



INGELESEK

ingelesez
irakurtzen dituzte
eguneko berriak

A Smelly Flower From a Refined Family

By CAROL KAESUK YOON

After more than 180 years of puzzling, scientists say they have solved the mystery of the evolutionary origins of the plant that produces the biggest flower on earth.

Researchers now say the bizarre raffish—whose blossoms can measure nearly one meter across and were described by the Swedish explorer Eric Nyberg as having “a penetrating smell more repulsive than any buffalo carcass in an advanced state of decomposition”—actually sprang from the legume group of plants that includes peas and lentils, and passionflowers.

It was a long time ago, in the 18th century, when a British naturalist, Carl Linnaeus, first described the plant, which he called *Rafflesia*.

University who was the lead author of the paper, published online last month in *The Proceedings of the National Academy of Sciences*. “Some people have thought it was related to some other big smelly flowers,”

Rafflesia (pronounced ra-FLEE-shuh) are nothing if not strange. These plants not only make large and rank-smelling flowers, but they are also parasites. So unlike nearly every other plant, they have no leaves and no green tissue for photosynthesis.

Instead, in their home in the rainforests of Southeast Asia, *rafflesia* plants live by the sap of other trees.

ESPAINOLEK

espainolez
irakurtzen dituzte
eguneko berriak

► Cuatro personas fueron detenidas tras nueve horas de disturbios

AGENCIAS. SYDNEY

Las autoridades australianas pidieron ayer calma a la población aborigen tras la violencia del fin de semana en Sydney, que se saldó con cerca de medio centenar de policías heridos y al menos cuatro detenciones.

El lugar de los hechos, el barrio de Redfern, con una importante población aborigen, amaneció ayer con enormes banderas pintadas en las paredes, símbolo de los derechos de los indígenas australianos, mientras algunos

agentes del orden que duró nueve horas.

Condolencias

Thomas Hickey, de 17 años, murió el domingo a consecuencia de la herida producida por una vana metálica que, supuestamente, se clavó el sábado por la noche en una persecución con la Policía por, también al parecer, montar en bicicleta sin casco protector.

El jefe del Gobierno del Estado de Nueva Gales del Sur, Michael Spence, expresó sus condolencias a la familia.

FRANTSESEK

frantsesez
irakurtzen dituzte
eguneko berriak

de l'histoire du XX^e siècle

BERLIN

de notre cinéaste spécial. Trois coureurs de fond du cinéma d'auteur international se sont joints, dans la dernière ligne droite de la compétition berlinoise, au peloton: Ken Loach (68 ans), Theo Angelopoulos (69 ans) et Eric Rohmer (84 ans). Le premier, fidèle à une méthode désormais éprouvée, marie l'actualité sociale au romanesque dans *Le Fond d'écureuil*, dont le sujet tourne autour d'une alliance problématique localisée à Glasgow. Celle de Kasim, un jeune Pakistanais issu d'une famille musulmane, et d'une jeune femme d'origine turque.

volonté de perenniser l'œuvre, mais témoignent d'un constant accommodement à l'ambiguïté du réel et à la marche du temps, le cinéma d'Eric Rohmer accorde aujourd'hui d'un film vertigineux et intrigant, intitulé *Le Fugitif*.

Le film, situé dans l'entre-deux-guerres, met en scène, en adaptation d'un fait divers de l'époque, le non élucidé d'un espionnage russe réfugié en France. Les images d'actualité et les costumes d'époque sont soigneusement filés.

EUSKALDUNOK ERE EUSKARAZ IRAKURTZEN DITUGU EGUNEKO BERRIAK



HARPIDEDUNEN ABANTAILAK

1. Kioskoko prezioa baino %9 merkeago
2. Banaketa doan: etxean, lantokian...
3. Harpidedunaren Kioskoan zozketak eta opariak
4. Promozioetan abantailak



Egin zaitez harpidedun:
943 30 43 45
harpidetza@berria.info

Euskaldunok behar dugun **berria**

BITTOR OTAEGI 'BEIXAMA' ▶ udaltzain erretiratu

“Herritarrek hiru hilabetez jarriko nituzke municipal”

▶ Testuak eta argazkiak: Ihintza Agirretxe



TXIKITAKO AMETSA.

Beixama txikia zenean “kantatzeko ohitura handia” zegoen, “etxean, kalean, lagunartean, familian... edozein leku eta giro zen egokia” kanturako. “Niri Mario Lanza abeslaria asko gustatzen zitzaidan eta hura bezalako abeslaria izan nahi nuen”.

Martxoan erretiratu zen Bittor Otaegi Beixama, hainbeste urtean herriko udaltzaina izan eta gero. Denora 23 urte egin ditu lanbide horretan, baina tartean tailerrean ere jardun du.

Zer dela-eta udaltzain?

Ez dakit oso seguru; horrela tokatuko zen. Beizamako nire birraitona mikeletea zen eta, beharbada, hortik lan hau, hark utzi zizkidan sustraiengatik edo. Nire ondoren beste anaia bat ere sartu zen.

Lanbide zaila al da?

Askok uste baino zailagoa da. Nik, garai batean, soldadutza bezala herrian derrigorrezko jarriko nuke hiru hilabetean municipal izatea. Horrela guztiek jakingo lukete nolakoa den gure lanbidea. Gainera, jendeak lana duenean zuk jai duzu eta denak festan direnean, orduan zuk lana.

Zer da zailena?

Etiketetik hasi behar da errespetua jartzen, bestela..., eta hori ez da hain erraza. Gainera, gero jendeak hor jarduten du “horri ez eta niri bai”... Azken batean, *mano izquierda* pixka bat behar da.

Isun asko jarri al dituzu?

Bai, dezente jarri ditut, baina nire iritziz jarri behar nituenak baino askoz ere gutxiago. Izan ere, pertsonarik onenak ere neurri gabe jokutzen du bolante aurrean.

Eta jendeak ezagutze hori?...

Ondo eraman izan dut. Beti dago norbait arrazoi bat edo besteagatik begiko ez zaituena. Baina, oro har, gazte eta zaharrekin ondo moldatu izan naiz.

Urte guztietako pasadizoren bat?

1970eko San Inazio bezperako bat. Orduan Frontoitxian izaten ziren tonbola, tiobiboak... eta bi mutil haserretuta zebiltzen, saria bati tokatu zitaiola eta besteari tokatu zitzaiola. Saria nola-hala banatzeko konbentzitu nituen. ◀



Gizarte eragileak, udal agintariak, Kontseilukoak eta Uztarriakoak, ekainaren 22an, banaketa ekitaldian.

bai euskarari BERRIZ ERE

Azpeitian gero eta eragile gehiago dira euskararen aldeko konpromisoa hartzen dutenak; ziurtagiri banaketa horren lekuko

▶ Testuak: Ihintza Agirretxe ▶ Argazkia: Urola-Kostako Hitza

Azpeitian gero eta denda, enpresa, elkarte, taberna... gehiago dira bakoitzak bere esparrua euskalduntzen ari direnak. Ekainaren 22an banatu ziren, EBPnren ekitaldian, Bai Euskarari Ziurtagiria eta HEBE, eta herrian bederatzi eragilek hartu zuten lehen aldiz Bai Euskarari Ziurtagiria. Hauek: Eklipse Kultur Dendak, Etxahun kioskoak, Ongi-Etorrik, Kili-Kolor dendak, Oriyo kioskoak, Urkek, Belaetxek, Inaxita ileapaindegia eta Elurrak. HEBE, berriz, 32k.

Zer da konpromisoa hartzea?

- ▶ Errotuloak euskaraz jarri.
- ▶ Fakturak euskaraz jarri.
- ▶ Idatziak euskaraz jarri.
- ▶ Aurrekontuak.
- ▶ Txostenak.
- ▶ Nominak euskaraz jarri.
- ▶ Kontratua euskaraz jarri.
- ▶ Katalogoak euskaraz jarri.
- ▶ Balantzea.
- ▶ Estatutuak.
- ▶ Kudeaketa plana.
- ▶ Aseguro poliza euskaraz jarri.
- ▶ Lan hitzarmenak euskaraz.
- ▶ Programa informatikoetan testuak elebitan jarri...

Ziurtagiria dutenak

BAI EUSKARARI

ZIURTAGIRIA ▶

Bidean.

- ▶ Ongi Etorri jatetxea.
- ▶ Alde Zaharreko Merkataria Elkartea.
- ▶ Almacenes Etxeberria.
- ▶ Iturralde iturgintza.
- ▶ Jostaldi.
- ▶ Urrestilla.
- ▶ Amube Inmobiliaria.
- ▶ Jone eta Maikar.
- ▶ Odriozola ardoak.
- ▶ Pildain inmobiliaria.
- ▶ Lasao Altzariak.
- ▶ Kimu bat.
- ▶ Kutxa.
- ▶ Eroski, Eroski bidaiak.

Guk zerbitzua

euskaraz.

- ▶ Eklipse kultur denda.
- ▶ Urke.
- ▶ Belaetxe.
- ▶ Etxahun.
- ▶ Oriyo kioskoa.
- ▶ Inaxita ileapaindegia.
- ▶ Elurra taberna.
- ▶ Kili Kolor.
- ▶ Babesa.
- ▶ Agirre oparidenda.
- ▶ Mugi kirolak.
- ▶ San Sebastian.
- ▶ Arrospide oinetakoak.
- ▶ Coop. Legarda.
- ▶ Sarea.
- ▶ Lagun Onak M.B.
- ▶ Izarraitz Igeri Elkartea.

- ▶ ELA.
- ▶ LAB.
- ▶ Bankoa-Credit Agricole.
- ▶ GOE (Gipuzkoako Oilozaleen Elkartea).
- ▶ Iraurgi ikastetxea.
- Guk zerbitzua eta lana euskaraz.**
- ▶ Landatek Bulego Teknikoa.
- ▶ Uztarria Kultur Koordinadora.
- ▶ ELE (Euskadiko Latxa-Ardien Hazleen Elkart.).
- ▶ Gife (Gipuzkoako Friso Elkartea).
- ▶ Gitzezel (Gipuzkoako Txerrizaleen Elkartea).

- ▶ Gureko Kooperatiba.
- ▶ Herri Behi Elkartea.

HEBE (Hemen Bezeroekin Euskaraz; batzuek BEZ ere badute) ▶

- ▶ Auntxa.
- ▶ Ziatz.
- ▶ Intz.
- ▶ Xaberri.
- ▶ Zuhatz.
- ▶ Leku eder.
- ▶ Euskadiko Kutxa.
- ▶ Urtzi.
- ▶ Oker.
- ▶ Gipuzkoako eta Donostiako Kutxa (3).
- ▶ Oñatz.
- ▶ Idoia.
- ▶ Eklipse.
- ▶ Urke.
- ▶ Belaetxe.
- ▶ Etxahun.
- ▶ Oriyo kioskoa.
- ▶ Inaxita ileapaindegia.
- ▶ Elurra.
- ▶ Lagun Onak M.B.
- ▶ Kili-Kolor.
- ▶ Babesa.
- ▶ Agirre oparidenda.
- ▶ Mugi kirolak.
- ▶ San Sebastian.
- ▶ Arrospide.
- ▶ Coop. Legarda.
- ▶ Sarea.
- ▶ Andoni fruitategia.
- ▶ Varela gozoki denda.

EKLIPSE KULTUR

DENDA ▶

“Guri erraza egin zaigu ziurtagiria jasotzea”

1. “Egia esan, orain dela hiru urte, denda ireki genuenean, dena euskaraz jartzen hasi ginen, eta orain, batez ere, kanpora begirako konpromisoa da hau, jendeak ikus dezan Bai Euskarari Ziurtagiria dugula”.
2. “Guri erraza egin zaigu ziurtagiria hartzea, hasieratik dugulako konpromisoa, baina Azpeitian batzuei, jakina, zailagoa egingo zaie, urteak daramatzatelako erdaraz funtzionatzen”.
3. “Baina ziurtagiria hartzerantz animatu nahi ditugu, garrantzitsua delako euskaraz bizitzen joateko pausoak ematea”.

kin batere kontatu gabe. Orain ikusi dut Udalaren eta Uztarriaren artean, eta Udalaren eta Kontseiluaren artean hitzarmena dagoela herrian euskara normalizatzeko, eta orain denen artean eskaintza jaso dudanean ez dut dudarik izan Bai Euskarari Ziurtagiria hartzeko”.

2. “Azpeitian ia denok gara euskaldunak eta normala behar luke euskaraz bizitzea, batez ere euskalduntzeko zailak ez diren esparruetan (komertzioetan, kirol taldeetan...), eta nik neuk ez dut arazorik. Baina batzuei oraindik ere kostatu egingo zaie pauso hori ematea”.

3. “Gero eta gehiago bagara ziurtagiria dugunak, besteak animatuko diren itxaropena dut”.

KILI-KOLOR KOPISTEGIA ▶

“Betidanik egin izan dugu gure esku dagoen guztia”

1. “Betidanik gure esku dagoen guztia euskaraz egiten saiatu gara, eta orain Bai euskarari Ziurtagiria hartzerantz animatu gara. Izan ere, ziurtagiri hau euskarari bultzada emateko era izan daitekeela uste dugu”.

Galdetuz ▶

1. Zergatik hartu duzu Bai Euskarari Ziurtagiria?
2. Zer suposatuko dizu lanean?
3. Animorik bai besteei?



2. “Esan bezala, beti gure eskutik izan dugun guztia egin dugu euskaraz, eta, beraz, alde horretatik ez digu aldaketa handirik suposatuko. Zailagoa da ordenagailu programak eta horrelakoak euskaraz aurkitzea. Guk paperak eta aurretik ere euskaraz betetzen genituen”.
3. “Gure ziurtagiria da, euskaldunona, eta herriko merkataria, elkarre... guztiak animatuko nituzke ziurtagiria izatera”.

URKE ARGAZKI DENDA ▶

“Euskaraz egiten dugula ofizial egiteko era bat da”

1. “Ziurtagiri honen nondik nora-koak azaldu zizkidatenean, oso interesgarria iruditu zitzaidan eta azkenean animatu egin nintzen ni ere ziurtagiri hau izatera”.
2. “Bizia euskaraz egiten dugu eta azken batean, Bai Euskarari Ziurtagiria hori adierazteko jaso dugu. Lehen ere ingurukoek badakite euskaraz egiten dugula, baina kanpotik datorrenak ere jakin dezan guk denda euskaraz egiten dugula lan”.
3. “Herri euskalduna da gurea, eta euskaraz egiten duten beste eragileek ere hori ofizial egin dezaten aukera ederra da ziurtagiria”. ◀

Datua ▶

44

ZIURTAGIRI.

Azpeitian Bai Euskarari Ziurtagiria duten 44 eragile daude. Euskal Herrian ia 800 dira. Azpeitia da, biztanlegoa kontuan hartuta, eragile gehien dituen herria.

HIZTEGIA berriro

Uztailean argitaratuko du Azpeitiko Udalak, Hitzeko enpresak etorkinentzako eginiko liburuxkaren bigarren edizioa

► Testuak: Ihintza Agirretxe ► Irudia: Iñaki Martinez

Azaroan kaleratu zen etorkinei azuzenduriko oinarritzko lehen hiztegia Azpeitian, Eta orain, uztailean, bigarren edizioa aterako du Azpeitiko Udalak, Hitzeko Euskara eta Komunikazio Zerbi-

tzuak enpresak eginda. Lehen edizioaren argitaratzailea Baite Euskara Elkartea izanzen; herrian etorkin asko daudela-eta, hauek hizkuntza aldetik egokitzeko dituzten arazoak ikusita, oinarritzko

200 hitz edo esamolde hainbat hizkuntzatara itzulita ateratzea lagungarri izango zitzaiera iritziz. Agortu egin zen lehen edizioa. Hitzeko beste herrietan ere ari da proiektua saltzen.

LAILA JOUJAT ► etorkina

“Aurreneko pausoa emateko ona da”

Laila Joujat marokoarra urtarrietik Azpeitian bizi da. Hemen, gizonarekin eta orain gutxi izan duen haurrarekin batera bizi da. Laila eta bere familia bezalako pertsonen hasieran herrian integratzeko laguntza emateko tresna da etorkinentzako hiztegi edo liburuxka.

Noiz eskuratu zenuen etorkinen hiztegia?

Liburuxka batek irten zuela jakin nuen, eta osasun zentrorra joan nintzen batean ikusi eta hartu egin nuen.

Zer iruditzen zaizu?

Ona iruditzen zait, guretzat modukoentzat lehen pauso bezala ondo etortzen da, baina hiztegi honekin bakarrik ezin da bizi, ezin da euskaraz ikasi. Hasieran laguntzen dizu euskaraz hitz solte batzuk ikasten edo esaten, eta

hori beharrezkoa da, baina behin pauso hori emanda, behin soltatzaren hasita, nik hiztegiari egunerokotasunean erabiltzen ditugun esaldiak erantsiko nizkioke: ‘zer moduz zaude?’, ‘non dago xaboa?’, ‘nondik joan naiteke hara?’... Egutero hamaika aldiz erabiltzen ditugun esaldi horiez ari naiz, baina, jakina, beste edizio bat atera beharko litzateke, desberdina, oinarritzkoa baino osatuagoa. Seinale ona litzateke.

Erabat euskaraz hitz egiten ikasteko asmorik ba al duzu?

Jakina baietz! Ari naiz saiatzen pixkanaka, baina denbora pixka bat daukadanean ikasten hastea espero dut. Izan ere, herri honetan integratzeko behar-beharrezkoa dela ohartu naiz. Adibidez, orain gutxi osasun zentrorra joan nintzen, atea itxita zegoen eta paper bat zuen itsatsita euskaraz, eta ezin izan nuen ulertu.

Euskal Herrian euskaraz hitz egiten dela ba al zenekien?

Ez, ez nekien. Nik uste nuen hemen gaztelaniaz hitz egiten zela. Hona etorritakoan izan nuen lehen aldiz euskararen berri. ◀

Hitzaldia ►

13

UZTAILAK.

Uztailaren 13an (asteartea), Agustin Unzurrunzaga SOS Arrazakeriako arduradunak hitzaldia eskainiko du Azpeitian, Uztarriaren Euskara taldeak antolatuta. Etorkinez eta euskal munduaz ariko da.



 Bota lasai ▶ (www.uztarria.com/euskara)**Ron-a euskaraz ez?**

 Herriko taberna batzuek tar- teka antolatzen dituzte ron marka zehatz batzuen hala- ko promozio jai batzuk. Ez dakit zer marka kontsumitzen ba- duzu, opari bat ia seguru, eta abar. Jendea erakartzeko formu- la, eta ez zait gaizki iruditzen. Baina kontua da kartel horiek denak espainolez iristen zaizkiela, eta gero horrela jartzen dituztela kalean, espainol hutsean. Aste- buru batean, Fideo tabernak egin du. Ron-a euskaraz kontsumitze- ko eskubiderik ez?

▶ Iban


Gizarte eragileak

 *Hitza*-n irakurri dudanez, ekainaren 22an banatu ziren Bai Euskarari Ziurtagi- riak eta HEBE Azpeitian. Gero eta komertzio, enpresa, ta- berna, elkarte... gehiago dira ba-

koitza berea euskaraz funtziona- tzen jartzera animatzen ari dire- nak, eta eskerrik asko eta zorio- nak zuei, herri honetan aitzindari izaten ari zaretelako. Ea besteak animatzen diren.

▶ Ane

Erdi Aroko Azokaz

 Erdi Aroko Azoka izan zen Azpeitian. Udalak antolatu du, enpresa bat kontratatu- ta. Azokan postuetan hain- bat eta hainbat idatzi erdaraz zeu- den (eskaintzak, salneurriak...). Eta hau da nire galdera: Udalak zergatik ez zituen behartu haiek idatziak euskaraz jartzera? Jaki- na, ez aste bukaeran bertan, bai- zik eta aurretik, baldintza hori ja- rrita. Batetik, Azpeitian (ere) eus- karaz bizi behar genuelako aste- buru hartan (ere), eta, beste- tik, Udala zelako dirua jartzen zuena.

▶ Txomin

Hautaprobaren hautua

 Araba, Bikaia eta Gipuzko- an unibertsitaterako hauta- proba edo selektibitatean edukiak gaztelaniaz eta eus- karaz emanak datoz. Orriak erda- raren aldetik josita edo gratututa daude, lehena erdaraz, eta eus- karazkoa irakurri edo ikusi nahi duenak bigarren orrialdera jo be- harra du, gaztelaniazkoaren lehe- neste nabarmenarekin. Gauzarik txikienetan ere bistakoa da EHU- UPVk zein leku ematen dion eus- kararen hautua egiten duenari. Hautu baten froga da.

▶ Jose Luis Otamendi

Beste eraso baten zain?

 Ekainaren 5ean Iruñean ma- nifestazioa egin zen *Hizkun- tza Eskubideak*. *Denon Konpromisoa* lelopean,

Kontseiluak antolatuta. Azpeititik dozena erdi lagun besterik ez zen joan. Manifestaziora ez joate hu- tsak ez du esan nahi konpromiso- rik ez dagoenik, baina berriro eus- kararen aldeko ekimen indartsu bat martxan jartzeko beharrezkoa al da beste egunkari bat ixtea?

▶ Mikel Arregi

Erantzuna

Kontseiluaren manifestazioa *Egunkaria*-ren itxierarena baino garrantzitsuagoa zen. Itxiera, egoera baten ondorioa izan zen: eskubide ezarena, babes politiko eta juridiko eza- rena, demokrazia ezarena. Eus- kal Herrian eskubideak, babe- sa, demokrazia bagenitu, ez zu- keten egunkaria itxiko. Horren bila joan behar da; horregatik antolatu zen Iruñeko manis- festazioa. Baina orain Azpeititik 8 autobus ez, 8 lagun hara.

▶ Enekoitz Esnaola

 Hemeroteka ▶ Gotzon Garate (idazlea, 'Argia')**Euskara eta Azpeitia**

Beren bizitza osoa baserrian eman dute- nen euskara oso ona da, ereduzkoa. Hitz egiten maisu dira. Baserri batean egin nuen lehen egonaldian hitzaldi batera joan nintzen baserriko kide batekin eta amaieran esan nion: "Zein ondo egon den hizlari hori", eta ba- serritarrek erantzun: "Gu ere ongi egon gara bada". Orduan konturatu nintzen, kaletarrok ez bezala, gaztelaniaren erdal eraginik ez dutela ia baserritarrek. Nik bederatzi urte egin nituen Euskal Herritik kanpo, eta itzuli nintze- nean pentsatu nuen, "zer egin behar dut eus- kara ongi ikasteko? Baserrietara jo". Baita asmatu ere.

Baserrietako euskara eredugarri da nire- tzat, hain zuzen ere ezaugarri hori duelako, erraza eta bizia delako. Baserritarrek egune- roko gauzez, lanez hitz egiten dute, eta modu garbi eta aberatsean euskara erraza, ulerga- rria egiten dute. Horixe da gaur egun lortu

behar duguna. Askotan euskal sena ahaztu eta nahasi egiten dugu gure hizketa

Euskara txukuna egiteko giltza non dago- en? Gaur egun, zorionez, material ugari eta oso baliagarria dugu. Antzina, Koldo Mitxele- nak lan ikaragarria egin zuen gramatikan eta beste arlo batzuetan, baina Resurreccion Maria Azkuek hutsetik egindako hiztegia, ope- rak, eleberriak, eta abar ezin ahaztuzkoak dira niretzat. Orotarikoa altxor ikaragarria da ida- tzizko tradizioa jasotzeko. Dena den, baserri- tarren moldeak, ahozkoak izaki, bizirik daude eta horiei ezin diegu ihes egiten utzi, nola edo hala jaso behar ditugu.

Bestela, lexikoa, esaterako, aldatzen da, baina funtsean oinarria bat da. Tradiziozkoa ez da bakarrik hutsak baztertzen dituen, baizik aberasten dituen. '*Agujetas*' esateko molde asko daude, herriak egunero erabiltzen ditue- nak gainera. Kontua ez da erdaretakoak ez

erabiltzea; ulertzen bada horren gaizki ez dagoen seinale baita. Dena den, oso kontuan hartzekoa da horrelako hitzak mugaz bestal- dekoek ez dituztela ulertzen. Beraz, euskara txarra antzemateko bi irizpide horiek oso kon- tuan hartzekoak dira: lehenik eta behin, muga- ren bi aldeetan ulertzen den, eta ondoren tra- dizioari atxikia den. Hizkuntzak elkar ulertzeko dira eta ulertze hori hizkera aberatsez egiten bada, hobe.

Tokiak bereizi behar dira, nire ustez. Hizkun- tza zenbat eta gutxiago egin orduan eta gehia- go kaskartzen da. Azpeitian, esaterako, oso euskara ona egiten dute, egun osoan euska- raz ari direlako. Hala ere, baserrietan are ho- beto mintzatzen dira. Kalean erdal joera erra- zago sartzen da eta egunero erabiltzen ez dena ahaztu egiten da nolabait. Baina nik uste dut bestela, euskaraz egiten den herrietan, oro har ondo egiten dela.

Euskararen gorabeherak ▶



GORA. Ohorezko bazkideak

Uztarría Kultur Koordinadorak Iñaki Goenaga eta Joxe Agirre Oanda ohorezko bazkide egin ditu, merezita. Argazkian erdian daudenak dira biak.



BEHERA. Errotuloa

Oraindik ere horrelako errotulo ugari topa daitezke inguruetan, gaztelera hutse-na. Denon konpromisoa beharko da horrelako kartel gehiago ez ikusteko.



Behatokia ▶ (euskararen eskubideen urraketak salatu ahal izateko telefono zenbaki berezia)

 **902 19 43 32**

Eskubidea ▶

“Eskubidea dugu Euskal Herriko toki-izenak euskaraz erabiltzeko, ahoz eta idatziz, esparru pribatu, publiko zein ofizialetan”

Euskal Herrian Euskaraz
'Bideak' eskuliburutik hartua;
Uztarrían dago edonoren eskura

Aipamena ▶

“Oso egunkari maitea dut 'Berria'; harpidedunak gara etxean, eta gustura irakurtzen dugu”

KONTXUELO ODRIÓZOLA ▶
aktorea



Basquepoetry ▶

3

IDAZLE.

Susa argitaletxeak 200 euskal poeten 1.100 poesia bildu eta jarri ditu Basquepoetry.net-en. Xabier Alday, Pako Aristi eta Jose Luis Otamendirenak daude haien artean.



www.lasao.com



Sare@informatika

Telekomunikazio Zerbitzuak & Informatika



Eskaintzen ditugun zerbitzuak eta produktuak

Ordenagailuen eta portatilen salmenta



Markako PC-ak

Gure markako PC-ak

Portatilak

Informatika zerbitzu teknikoa



Zerbitzu Tekniko azkarra

Mantenu Kontratuak

Periferikoen salmenta eta konponketak



Multifuntzioak

Formatu handiko inprimagailuak

Laserrak

Sare informatikoen instalazio eta kudeaketa



Sareen diseinua eta muntia

Sareen mantenua

Serbitzariak

Kontabilitate kudeatze programen ezartzea



Kudeaketa programak

Kontabilitate

Nominak

WEB orrien diseinua eta mantenua



Erregistratzaile, balantza eta TPVen salmenta



Informatika aholkularitza



Euskaltel Leihoa



Komunikazio osoa puntu bakarrean,
zure etxean

☎ - Nahi beste dei probintzia barruan hilean 7 €

@ - 24 orduko tarifa finkoa 22 €

☐ - Goi mailako irudi kalitatea eta 17 kanal



Azpeltia
Pablo VI 19 behea
943 157 321

Azkoitia
Julio Urkixo 10 behea
Telf: 943 85 36 60

Zarautz
Kale Nagusia 1 Behea
Telf: 943133385

Banatzaile Ofiziala
Euskaltel

ETXEBIZITZA BERRIAK AZKOITIAN

(XABIER MUNIBE IKASTOLAREN ONDOAN)

ESTRADA AZKOITIA ERRESIDENTZIA



- 2 eta 3 logelako etxebizitza zabalak orientazio ezberdinekin
- Etxebizitzak behe solairuan eta teilatupean terraza handiekin
- Garaje eta trastelekuak
- Gune eguzkitsua, hirigunetik gertu

Neinor

NEINOR Azkoitia ■ Julio Urkijo etorb, 10 behea ■ ☎ 943 852 411 - 943 317 511